

AIARALDEA *hemen*



MAITEDER INTXAURRAGA:
"Dena hankaz gora daukat,
errutina berria topatu behar dut
bizitzari zentzua emateko" 8-9 or.

YOUYOU-IRRINTZI:
"Irrintzia artea egiteko tresna
izan daitekeela ulertu dugu
sormen laborategian" 18-21 or.



Burdin Arotik orainaldira

AIARALDEA 2
Legealdi berriari ekiteko prest da Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitatea
2021ean sortu zuten erakundea, eskualdeko udalerrri bizkaitarrekin

LAUDIO 7
Guardian eta Parter Capitalen presentzia exijitu du epaileak
Autoglas-Glavistako Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozesuan egon beharko dute

ARRANKUDIAGA 4
Angel Egaña gudariaren gorpuzkiak topatu dituzte Valladoliden
Gorpuzkiak jatorrizko herrira ekartzea izango da hurrengo urratsa

KULTURA 22
Kultur adierazpenerako bi ziklo berri abiatu dituzte Faktorian
Paula Urkijoren dantzarekin eta Parkour tailerrarekin abiatu dira ekimenak

AMURRIO 5
Guk eskultura omenduko du Amurrioko erakusketa filatelikoak
Eskulturak hogeitun urte beteko ditu aurten, eta zigilu berezia ekoitzi dute urteurrenerako

KIROLA 26-27
Eskubaloia; Aiaraldeko udalerrietan berpiztuz doan kirola
Amurrioren eta Arrankudiagan eskubaloia talde berriak agertu dira, kirola biziberrituz

AIARABIKE <<<
LAUDIO aiarabike.com

40 TXIRRINDULA BAINO GEHIAGO LIKIDAZIOAN, %20TIK %40RA ARTEKO DESKONTUEKIN

Zure bizikleta mantenurako denda eta tailer aditua



INFO@AIARABIKE.COM 946 565 449
GOIKOPLAZA 24, LAUDIO (EROSKI ALBOAN)



herriz herri

Aiaraldea

Legealdi berriari ekiteko prest da Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitatea



Urduña, Orozko, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zolloko ordezkari politikoak izan ziren ez-ohiko osoko bilkuran. Aiaraldea.eus

Testua
Almar Gutierrez Bidarte

Ezohiko bilkura egin zuten atzo Ibaizabal-Nerbioi Mankomunitatea osatzen duten bederatzi udalerrietako ordezkariak, tartean Urduña, Orozko, Arakaldo eta Arrankudiaga-Zolloko ordezkari politikoek ere. Maiatzeko Udala eta Foru hauteskundeek eskualdeko mapa politikoa aldatu dute, eta horren isla mankomunitateira iritsi zen atzo.

Gauzak horrela, bigarren legealdiari ekin dio erakundeak. Atzoko bilkuran mankomunitateko lehendakaria hautatu zuten bederatzi udalerrietako ordezkariak. Orain arte lehendakari izandako Miguel Angel Herro izendatu zuten berriro ere aho batez. Txutxi Ariznabarreta Arrankudiaga-Zolloko alkateak Herrok azken urteetan mankomunitatearen eraketan egindako lana jarri zuen balioan, eta bide horretan jarraitzeko "hautagairik egokiena" dela adostu zuten guztien artean.

Lehendakariordea izendatzea

2021ean sortutako erakundeak urriaren 18an ekin zion bere bigarren legealdiari, eta Miguel Angel Herrero hautatu zuten lehendakari aho batez

falta da orain, baina, Herrok bere hitzartzean aurreratu zuenez, abendu hasieran egingo duten lehenengo osoko bilkuran adostuko dute ardura hori.

Erronka berriak

2021eko maiatzaren 13an sortu zen Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitatea, ordura arte Udaltalde 21 erakundeak abiatutako bideari segida emateko asmoz.

Guztira bederatzi udalerri osatzen dute mankomunitatea, tartean Aiaraldeko lau udalerri: Urduña, Orozko, Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo, Zeberio, Ugao-Miraballes, Arrigorriaga, Zaratamo eta Etxebarri.

Lehenengo legealdian jasangarritasun politikez eta hondakinen kudeaketaz arduratu da nagusiki mankomunitatea, baina bigarren legealdi honetan erronka berriak esleitu nahi dizkiote haien buruari. "Zerbitzu berriak konpartitzeko erronka dugu legealdi berri honetan, gizarte zerbitzuak besteak beste", azaldu zuen Ariznabarretak Arrigorriagako udaletxean izandako osoko bilkuran.



AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA

Argi mintzatzeko beharra

Hitz hauek idatzi orduko beste kolpe bat jaso izana ez litzateke harriztekoa, edota aldizkari hau inprentatik ateratzen denerako enegarren eraso pairatu izana. Ari du, baina noiz ez? Debekuak, zigorrak eta kontu larriagoak izan dira, eta nahiz eta orain formak beste batzuk diren, tresnak findu edo makillatu diren... ari du. Gure hizkuntzak ezker-eskuin jasotzen darrai eta berarekin gu, hiztunok, hizkuntzaren atzean, aurrean, gainean eta baitan gauden pertsonok, berbari bizia ematen diogunok. Pertsonak baikara, komunitate bat, eskubideak eta identitatea jokoan dituenak. Oraingoan oldarraldiak epai forma du eta euskararen biziberitzea eta normalizazioa du jo puntu, Udala Legeari eraso eginez. Diglosia egoera euskara lehenestea legez kanpoko bihurtuz, hizkuntza bultzatzeko estrategia oso bat azpiratu nahi dute. Egungo egoera betikotu eta izatekotan, atzera pausoak izan daitezela, inoiz ez aurrera pausoak, hor xede nagusia. Epaitegietatik politika egiten darraite, euskararen aurkako politika, euskara hedatzea eta euskaldunok eskubideak egikaritzea saihesteko harresiak eraiki eta eraiki; eta normalizazioa bultzatzeko sortutako tresnak, eraitsi eta eraitsi.

Baina, nola heldu gara honaino? Ikuspegi historiko eta kritikoa- ren betaurrekoetatik, nola iritsi da gure hizkuntza dagoen egoerara? Natural, libreki edo induzitua izan al da? Justizia (eta ez epaitegietakoa) ere bada kontua, injustizia eta bidegabekeriari buelta emateko politikak garatzea galarazi nahi dituzte epai hauekin.

Ari du, euskararen komunitatearen egunerokoa eta ortzi-mugan erronkak hamaika eta ez txikiak diren testuinguru batean. Euskararen lurraldea zabaltzeko lanean gabiltzala, euskal hiztunon eskubideak bermatu nahi ditugula dihardugula, euskararen erabilera bultzatzen ari garela, euskalduntzea indartzeko beharra dugula, ... Murriztu, ebaki, mutilatu eta gero eta kaiola txikiagoan nahi gaituzte euskaldunak. Eta ahal dela gutxietsita, prestigioa ebatsita, autoestimua galduta, otzan eta indarge.

Nola erantzun? Zein da aterako dugun aterkia oldarraldi honen aurrean?

Hasteko eta behin, giharra erakutsi beharra dago, ozen esan bagarela nor, bizi nahi dugula eta bizitzera goazela, komunitatea bilduz, elkartzen gaituen horretan batuz eta kalera ateraz. Nahikoa da ozen bat.

Aiaraldetik hasita bada zer egin. Eskualdeko bederatzi udal- tan mozioa aurkeztu du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak. Hor bide bat. Euskararen normalizazioan pausoak eskatzen ditugu udal- tan eta konpromiso praktiko eta neurgarriak hartzera gonbidatu genituen hauteskundeetan, orain dator horiek gauzatzeko unea. Familien baitan euskara bultzatzeko ekimenak egin ditugu ikasturte hasierarekin eta Errotuladore gorria eskutan euskararen aurkako praktikak salatu ditugu. Ari gara eta bada bide bat ibiltzeko.

Eraiki bai, baina baita defendatu ere. Horregatik, Euskal Herriko Euskalgintzak deituta azaroaren 4an Bilbon izango gara, Bilbon izan behar dugu, kaleak bete eta ozen aldarrikatze-ko nahikoa dela, eraso gehiagorik ez dugula onartzen. Biharamunean berriz, ilusioz eta indarrez helduko diegu hamaika erronkari, hamaika esparrutan zer egin bada eta guztietan eman behar baitira pausoak, guztiok baditugu emateko pausoak eta guztiok dugu *euskaraktibatu* beharra, euskaldunon komunitatea eta euskara bizi bedi.

Aiaraldea

Igeriketa klaseetarako eskola garraiorik gabe daude Artziniegako eta Aiaraiko ikastetxeak



Eskola garraioaren afera ez da guztiz konpondu. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urte hasiera gogorra ekarri zuen eskola garraioaren aferrak Aiaraidera, baina enpresen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioak ez du guztiz itxi arazoa. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak autobusa ordaintzeari utzi dio Artziniegako Gure Arteko Ama Ikastetxeari eta Etxaurren Ikastolari, ikasleek igeriketa klaseak jaso ditzaten.

Igeriketa heziketa fisikoaren ikasgaiaren barruan lantzen da eskoletan eta Artziniega zein Aiaraiko ikasleek beste udalera jo behar dute klase horiek izateko, haien herrietan ez baitago azpiegiturarik horretarako. Hasi berri den ikasturtera arte, Arabako Foru Aldundiak hartzen zuen beregain gastu hori. Orain, ordea, finantzazioa etetea erabaki du.

Hala azaldu du Artziniegako

ikasleentzako guraso elkarteak: "Arabako Foru Aldundiak argudiatzen du hezkuntzari lotutako gai oro Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela eta, ondorioz, ezin duela ordaindu".

Eskolaz kanpoko jarduera

Guraso aiararrek, okondorrek (Okondoko hainbat ume Etxaurren Ikastolan matrikulatuta daude) eta artziniegarrrek saiakera egin dute bestelako ereduak topatzeko: "Hasierran Aldundiak aipatu zigun, eskolaz kanpoko ordutegian kokatuz gero, gastu guztia beregain hartuko zuela, baina gero komunikatu digu begiraleak ez dituela ordainduko. Izan ere, norbaitek lagundu behar ditu umeak burua lehortzen, adibidez".

Hori dela eta, Artziniegako IGE eskolako zuzendaritza taldearekin batera bide berriak bilatzen ari dira herriko gurasoak igeriketa ikastaroak eskaintzen ja-

rraitzeko. Aldi berean, Etxaurren Ikastolan aztertzen ari dira aukera egongo litzatekeen ikastaroa ikasturte amaieran egiteko bertan dauden udal igerilekuan.

Baina hori guztia kudeatzeak zama gehigarria ekarri die; bai baliabide pertsonalengaitik eta baita baliabide ekonomikoengaitik ere.

Izan ere, igeriketa eskolaz kanpoko ordutegian egiteak ikasleentzako zaurgarritasuna eta diskriminazioa handitzea eragingo luke, Artziniegako guraso elkartearen aburuz: "Seguruenik familia batzuek beraien seme alabak ikasturtera ez eramatea erabakiko dute arrazoi ezberdinetatik, eta politika aldaketa horren kaltetuak Aiaraidean ditugun moduko herri txikiak ikasleak izango dira, berriz ere, landa eremuko biztanleen desabantailak areagotuta eta euren oinarritzko eskubideak urratuta".

Orozko

Udalak bat egin du Euskalgintza Kontseiluak deitutako manifestazioarekin

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urriko udal osoko bilkuran aurrera egin zuen EH Bilduk aurkeztutako mozioak Euskalgintzaren Kontseiluak antolatutako mobilizazioaren harira. Jeltzaleek eta koalizioak bat egin zuten Bilbon azaroaren 4an egingo den manifestazioa babesteko.

Uztailaren 6an Espainiako Konstituzio Auzitegiak udalerrri euskaldunei euskara hutsez funtzionatzeko aukerak murriztu zizkien, EAeko Udal Legeko 6.2. artikulua partzialki baliogabetuta. Epaiak, Udal

Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezeztatzen zien. Emandako epaiaren aurrean, kezka larria erakutsi dute EAJ eta EH Bilduko udal talde politikoek.

Era berean, euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzearen aurka, hizkuntza-politikak garatzeko herritarren eta udalen erabakimenaren defentsa egin du Orozkoko Udalak.

Gauzak horrela, tokiko erakundeak herritarrak deitu dituzten azaroaren 4an Euskalduna Jauregitik 17:00etan aterako den mobilizazioan parte hartuzera.

HOTEL ORDUÑA PLAZA

Balneario

ZERBITZU BOROBILA JAUNARTZE BOROBILERAKO

I MENUA

HASIERAKO PLATERAK

Askotariko iberikoak
Foie terrina, etxeko micuita, sagar-purea & jengibre
Gratinatutako biera

PLATER NAGUSIAK

Lupi trontzoa hornigaiekin
Aberre Nagusi azpizuna iberiko olio errearekin & baltsamikoarekin

POSTREA

Jaunartze tarta

62€



II MENUA

HASIERAKO PLATERAK

Pikilloen suflatua
Foie mousse, sagar & sagardo xerra
Askotariko iberikoak

PLATER NAGUSIAK

Gratinatutako txangurru eskola bere koraleto bexamelarekin
Glasatutako txahal-masaila barazkiekin, perretxikoekin & semolarekin

POSTREA

Jaunartze tarta

55€



Ekitaldi eta bazkalondoko haur-animazioa prezioan aintzat hartuta dago.

Menuetan % 10eko BEZa barne hartuta dago · Menuek plater guztiak aintzat hartzen dituzte

Errioxako J.I. ardo beltz ondua, Rueda J.I. ardo zuria, Bizkaiko txakolina J.I., ura, freskagarriak, kafea eta infusioa barne.

Foru plaza, URDUÑA · Tel. 945 56 90 38
info@hotelordunaplaza.com · @hotelordunaplaza

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES · VENDEMOS SERVICIO

ANOVA MG2600 MOTZERRA

Zilindro-bolumena: 25,4 CC
Potentzia: 1,2 HP / 0,9 KW
Ezpada: 10" - 25 cm - 3/8" BP Oregon
Katea: 40E - .050" - 1,3 mm Oregon
Karburaigailu mota: Walbro
Pisua: 3,2 kg

ANOVA
DISTRIBUIDOR OFICIAL



224€ BEZ barne

Arza II industrialdea, LAUDIO · 946 43 00 42 · enkarki@enkarki.net · www.enkarki.net

herriz herri

Arrankudiaga-Zollo

Arrankudiaga-Zolloko herritarren eta Valladolideko oroimen historikoko elkarten elkarlanari esker identifikatu dute eta gorpuzkiak jatorrizko herrira ekartzea izango da hurrengo urratsa.

Angel Egaña gudariaren gorpuzkiak topatu dituzte Valladoliden eta herriratzeko prozesua abiatuko dute



Gudari fusilatuen omenaldiak jendetza batu du Arrankudiagako hilerrian. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua **Altor Aspuru Saez**

Iraganastean eginiko Arrankudiaga-Zollo eta Arakaldoko gudari fusilatuen omenaldian jakinarazi zuten Angel Egaña (Aingeru esaten zioten etxean) borrokariaren gorpuzkiak identifikatu dituztela Valladolideko El Carmen hilerrian. Han beste 2.650 errepresaliaturen gorpuekin dago.

Dena den, informazioa ez da gaurkoa. Arrankudiaga-Zolloko historia berreskuratzen arizen den Txomin Egiluzek, senide batek (DNA probarako laginak eman zituenak) zein Udalak bazekiten, baina gudaria herriratzearen zain zeuden horren berri emateko, prozesua hastear baitaude.

Berez, arrankudiagarrak irailan jarri ziren harremanetan Gogora institutuarekin eta honek azaldu zien Egañari eginda-

ko bigarren DNA proba positiboa izanzela (lehenengoak ezzuen berrets).

Hala ere, atzoko ekitaldira jende ugari bertaratu zenez, aukera baliatu zuten eta Angel Egañaren gorpuzkiak herrira ekartzeko ahaleginak hasi dituzte jadanik. Berez, senide baten eskaera ofizialaren zain daude eta Valladolidera joko dute bere bila.

Egiluzekgoraipatu nahi izan du Valladolideko Oroimen Historikoko Elkartearen lana, eta bereziki Julio del Olmok eginikoa.

Gudaria eta fusilatua

Valladolideko hilerrian bertan eraildako errepresaliatuen omeneko ekitaldia egin zutenean, Arrankudiaga-Zolloko Udalak oharra zabaldu zuen Egañaren ibilbidea azaltzeko: "Angel Egaña 1914an jaio zen Arrankudiagan eta 1936an estatu kolpe faxistaren aurrean euskal milizietako Padu-

ra batailoian sartu zen. Hainbat gerra frontetan hartu zuen parte teniente karguarekin. Bereziki aipagarriak Gorbeiaiko borrokaldiak. 1937ko ekainean Bilbo erori ondoren, Santander aldera egin zuen batailoiak eta Santoñan atxilotu zuten faxistek irailean. Azaroan Valladolidera eraman zuten eta abenduan egin zen gerra-kontseiluan heriotza zigorrera kondenatu zuten. 1938ko ekainaren 2an fusilatu zuten Valladoliden eta El Carmen hilerriko zazpigarren hobi komunean lurperatu zuten".

Identifikazioa

Txomin Egiluzek aipatutako Aiaraldea Komunikabideari Emilio Cruz Rafael Pedrero Mardones anarkistaren agerpenak asko erraztu duela identifikazioa: "Angel Egaña Valladolideko anarkista batekin fusilatu zuten. Gizon hori militante oso ezaguna eta fina zen. Medikua zen eta uniber-

Ramon Azkue Gorostizaga, Angel Egaña Mendibil eta Gregorio Urkixu Alberdi eusko gudari fusilatua gogoratu eta goraipatu zituzten Arrankudiaga-Zolloko hilerrian

tsitateko irakaslea. Estatu kolpe faxista izan zenean, lortu zuen ihes egitea, baina gero frankistek topatu zuten, ezkututzen ari zirenek diru truke egiten baitzuten eta Mardonesen familiak ez zuen bitartekorik gehiago ordaintzeko. Poliziak eta falangistek gorroto handiaziotenez, sekulako jipoiak eman zizkieten eta ziegabatean sartu zuten, ia hilik, barne lesio ugarirekin. Ezustean, anarkista honek aurrera egin zuen, baina burua galdu zuen torturen ondorioz eta saiatu zen bere burua beste egiten. Erregimenak ekidin zuen, baina soilik Egañarekin fusilatzeko geroago".

Dirudienek, CNTko militantea ezaugarri fisiko bereizgarriak zituena (1,90 metroko altuera) eta Angel Egañarekin erail zutenez, gizon garai baten gorpuzkiak topatzen, suposatu zuten Egaña zela berarekin zegoena. DNA probek berretsi dute hori.

Amurrio

Guk eskultura omenduko du Amurrioko erakusketa filatelikoakGuk eskultura duen zigilu-markatzaile bat ekoitziko dute. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Armuru Elkarteak antolatutako Erakusketa Filateliko-Numismatikokoaren edizio berria hartuko du Amurrioko La Casona erakusketa aretoak azaroaren 11tik 25era. Aurtengo edizioaren protagonista nagusia *Guk* eskultura izango da; "izan ere, hogeitau urte bete ditu amurriarren ikono gisa", azaldu du Koldo Izagirrek, Armuru Elkarteko kideak. *Guk* eskulturari bakarrik ez, iaz zendu zen Angel Camino egileari ere egin nahi diote aitortza.

Horretarako, zigilu-markatzaile berezi bat sortu dute, eta erakusketak iraun bitartean Correoseko bulegoak Amurriotik bidaliko dituen gutun guztiak matasellatuta aterako dira. Hori bakarrik ez, *Guk* eskulturaren irudia izango duten zigilu eta gutun-azal eta txartel "maximoak" ere ekoitziko dituzte erakusketaren testuinguruan. "Gutun-azala eta txartel 'maximoa' zigilu bat jaulkitzen den unean egin ohi dira. Zigilua gutun-azal batean itsasten da, zigiluaren gaiari buruzko irudi batekin edo agertzen den irudiarekin, eta zigilua matasellatu egiten da zigilua igorri zen eguna jasota gera dadin", adierazi du Izagirrek. Numismatika eta filatelia zaleek azaroaren 14an izango dute oroigarritzko zigilu-marka erabiltzeko aukera, euren bilduma pertsonaletarako.

Zigilu eta txanponak

Bi astez egongo da ikusgai Armuru Elkarteak La Casonan prestatutako erakusketa. Lan egunetan 17:00etatik 19:00eta-

ra egongo da ikusgai. Jai egunetan, aldiz, 10:00etatik 14:00etara. Astelehenetan, ordea, erakusketa itxita egongo dela azaldu dute antolatzaileek.

Gai ugari jorratuko dituzte bertan, eta hainbat dira erakusketara gonbidatutako bildumak: Operako binokularrak, brontzezko zaharriak, Athleticeko peñen egutegiak, Heraclio Fournierren kartak edota garagardo txapak.

Erakusketa nagusia, ordea, txanpon eta zigiluena da. Txanpon eta billeteei dagokienean, atal ugari atonduko dituzte: Guda Zibilean igorritako txanponen bilduma, Kanadako hegazkin-gidari ospetsuekin lotutako txanponen bilduma, XIX. mendeko eta XX. mendeko pezetan bilduma zabala, Austria eta Alemaniako euroenak, akatsak dituzten billeteenak edota munduko billeteenak, besteak beste.

Zigiluen erakusketak ere gai ugari jorratuko ditu, baina nagusiki naturarekin zerikusia duten zigiluak jarriko dituzte ikusgai aurtengo edizioan.

Ekintza osagarriak

Erakusketa hainbat ekitaldiarekin osatuko dute Armuru Elkarteko kideek. Azaroaren 11n irekiera ekitaldia egingo dute 12:00etan, eta egun horretan "jakintza numismatikoa" lehiaketa ospatuko dute, "herriko txikiak numismatika eta filateliara erakartzeko helburuarekin".

Azaroaren 15ean eta 16an, ordea, hitzaldi bana eskainiko dute; filateliari eta numismatikari buruzkoak, hurrenez hurren.

Zabaleko Eskola "heriotzara" eramatea leporatu diote Hezkuntza Sailari2021ean egin zituzten eskolaren itxieraren aurkako mobilizazio nagusiak. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

2021ean izan zen Zabaleko Eskolako borroka ziklo biziena, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Amurrioko San Jose auzoko zentro hori itxeko asmoa plazaratu zuenean. Erabaki hori ezerezean geratzea lortu zuten orduan hezkuntza komunitateko kideek, hainbat mobilizazio eta ekimen abiatu ostean.

Baina, itxiera arrisku zuzena ekidin duten arren, eskolako kideek uste dute Hezkuntza Saila apurka-apurka ari dela Zabaleko "heriotzara" eramaten. Hala salatu du Guraso Elkarteak, Hezkuntza Sailari eta Jokin Bildarratzi zuzendutako ohar baten bidez.

Gurasoek gogorarazi dute aurreko ikasturtean Jaurlaritzak familia bat Zabaleko kanpo utzi zuela, "zaugarria" zelako eta San Joseko eskolak "zaugarritasun indizea" jada gaintzen zuelako. Eskola kontzertatu batera bidera-

tu zuten familia horren matrikula eta, ondorioz, Zabalekoko 2-3 urteko ikasgela 18 matrikularekin geratu zen.

"Beraz, ikasgela hau ez da bikoiztuko, eta horrela matrikula gehiago izateko aukera galtzen dugu, osorik beteta egonik, ikasturte honetan bertan matrikulatu nahiko lukeen edozein familia beste zentro batera bideratuko bailukete, berez jada gertatzen ari den bezala", salatu dute oharrean, eta gaineratu dute aurreko ikasturtean jakinarazi ziotela hori Hezkuntza Sailari, baina honek "entzungor" egin diela euren eskaerei.

Gainera, 2-3 urteko ikasgela dagoen bezala mantentzearen ondorioz, Zabalekok egiturazko tutore bat gutxiago du orain, eskolako kideek salatu dutenez.

Guraso elkarteko kideek "kezka" bizi izan duten gertakari hori, Eskola Publikoari "orokorrean eta zuzenean" eraso egiten diola uste dute-lako. Gainera, beste arazo ba-

tzuk ere aipatu dituzte, jantzik cateringarekin, eskola garrarioarekin edota giza baliabideen faltarekin egondakoak, besteak beste.

"Ikasle gutxi" argudiotzat

Horri lotuta, Guraso Elkarteak gogorarazi du "ikasle gutxi izatea" izan zela, hain zuzen, Zabaleko itxeko 2021ean jarritako arrazoietako bat; eta salatu dute Jaurlaritzak ezarritako neurriak direla, hain zuzen, ikasle kopurua handitzea eragozten dutenak, ikastetxea "heriotzara" eramanez. "Gogoratu nahi dugu 2023-2024 ikasturterako matrikulazioan oso datu onak lortu genituela zenbakitan; bai zenbatekoan, zein familien profilean. Baina, Hezkuntza Sailaren jarrearekin, ez zaigu ematen ari ez handitzeko aukera ez eta eza-gutuzera ematekoarena ere".

Gauzak hala, Zabaleko itxi nahi izatearen "benetako arrazoiak" zeintzuk diren azaltzeko eskatu diote Hezkuntza Sailari.

herriz herri

Laudio

Laudioko Udaletik %2,75eko igoera ezarriko dute datorren urtean tokiko zergetan, tasetan eta prezio publikoetan eta %5ekoa, aldiz, zabor tasetan. EAJk erabakia kritikatu du.

%50eko errenergua ezarriko diete etxebizitza hutsei, alokairu publikoko programa batean sartuta ez badaude

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Udalzergakigotzea erabaki du Laudioko Udalak datorren urteari begira. Udal gobernuak ki-deek azaldu dutenez, %2,75eko igoera ezarriko dute tokiko zergetan, tasetan eta prezio publikoetan, "Hego Euskal Herriko batez besteko KPIra" egokituz. Zabor tasak, aldiz, %5 igo-ko dira, "Europako araudiaren eskakizunetara egokitzeko".

Tokiko erakundeak azaldu du "zerbitzu publiko hobeak bermatzea" izango dela igoeren xede nagusia, eta nabarmendu du bi irizpide baliatu dituztela erabakia hartzerako orduan: "justizia soziala eta justizia eko-soziala".

Hala azaldu du Iñigo Martinez Cerrillo zinegotziak: "aurtengo udal ordenantzak legegintzaldi berri honetan onartuko ditugun lehenak dira, eta garrantzitsua da, gutxienez, fiskalitate bidezkoagorako eta berdeagorako bidearen hasiera markatzen has-tea".

Etxebizitza hutsak

Igoerak igoera, udal gobernuak nabarmendu du handitu egin dela hobaritutako errenten muga. Zehazki, 42.000 eurorainoko errentetara handituko dituzte hobarien taulak (udalerriko batez besteko errenta 41.316 euroakoa da Eustatek 2021ean eginiko neurketen arabera).

Horrez gain, tasa gutxiago ordaindu beharko dituzte alokairu publikoko programa baten barruan (Alokabide) dauden etxebizitza hutsek edo trantsizio eko-soziala eta, bereziki, energetikoa, bizkortzea helburu dutenek.

Horri lotuta, udal gobernuak nabarmendu du %50eko errenergua ezarriko zaiela alokairu publikoko ezein programatan ez dauden etxebizitza hutsei. Arabako Foru Aldundiak



Udal osoko bilkuran onartu ziren ordenantzen eguneraketak. Aiaraldea.eus

2017an eman zien Udalei errenergua hori jartzeko eskumena, EH Bildu, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin eta Podemos Ahal Duguren abstentzioarekin, baina orain arte Aiaraldean ez da inon ezarri.

Eustatek iaz bildutako datuen arabera, 1.288 etxebizitza daude Laudio bigarren etxebizitzak eta etxebizitza hutsak batuta (neurketak ez du bien arteko bereizketa egiten duela urte batzuetatik hona).

Tokiko zergeri dagokienez, udal gobernuak argudiatu du Hego Euskal Herriko batez besteko KPIaren arabera eguneratuko dituztela. "Tasei eta prezio

publikoei dagokienez, irizpide berari eutsi zaio, zaborren tasari izan ezik. Izan ere, tasa hori %5 handituko da, tasak zerbitzuaren benetako gastura egokitu behar direla adierazten duen Europako araudiaren eskakizunetara egokitzeko azken urteetako irizpideari jarraituz", argudiatu du Udalak.

Udalgobernuaren aburuz, politika fiskalak "tresna eraginkorra" izan behar du azken urteetako krisialdiak gehien pairatu dituzten herritarrak "ikuspegi sozialetik modu bidezkoagoan zuzentzen eta artatzen" saiatzeko, "gehien duenak gehien ordainduta".

"Gehien duenak gehien ordainduko duela" defendatu du udal gobernuak

EAJren kritika

EAJk, bere aldetik, oharra plazaratu du EH Bildu eta Omniak osatutako udal gobernuaren erabakia kritikatzeko, eta hainbat alternatiba proposatu ditu.

Jeltzaleen aburuz, "igoera neurrigabea" da ezarri dena, eta "arrabola" aplikatzea egotzi diote udal gobernuari. Zehazki, "informaziorik, azalpenik, lan egutegi seriorik eta dokumentu ofizialik" ez ematea leporatu diete EH Bildu eta Omniari, eta salatu dute ez daudela "onartutako igorerak bermatzen edo justifikatzen dituzten beharrezko azterlan ekonomiko-finantzarioak".

Laudio

Autoglas-Glavistako Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozesuan egotea agindu die epaitegiak Guardiani eta Parter Capitali

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Arrazioa eman die Gasteizko Merkataritza Arloko Epaitegiak ELA eta LAB sindikatuei, eta Autoglas-Glavistako Enplegua Erregulatzeko Espedientearen prozesuan egotea eskatu die Guardian multinazionalari eta Parter Capital inbertsio funts suitzarrari.

Zehazki, Guardianen hiru enpresek egon beharko dute espedientearen kontsultaldian: Guardian Llodio, Glass Spain eta Europe (hau da, Laudioko, Espainiako estatuko eta Europako ordezkariak, hurrenez hurren).

ELAk gogorarazi du urriaren 11n egin zela espedientearen kontsultadiko lehen bilera, eta Guardian eta Parter Capital ez zirela agertu ere egin. Orduan tramitatu zuten sindikatuek eskaera judiziala, bi enpresen parte hartzea exijitzeko. Epaileak onartu egin zuen eskaera eta, hori bideratu bitartean, bertan behera utzi zuen kontsultaldia.

ELA pozik agertu da lortutako emaitzarekin, bi enpresek "aurpegia emateko" balioko duelako. Sindikatuaren arabera, epaileak enpresa taldea eratu izanaren zantzuak sumatu ditu Guardian eta Parter Capitalen Autoglas-Glavistaren auzian izandako jokabidean. ELAko sail sindikalaren arabera, hauek dira epaileak "enpresataldea" osatzaren susmopean jartzen dituen enpresak: Autoglas OPCO, Guardian Llodio UNO, Guardian Glass Spain Holding, Guardian Europe, Parter Capital Group, Blue Motion Technologies Holding, Autoglas Holding, 3B Management, Valenciana de suministros eta Glavista Autoglas GMBH.

Gauzak hala, ELAren arabera, "aurrekaririk gabeko" erabakia da epaileak hartu duena, eta argi uzten du gertatutakoa ez dela "gaizki" atera den "saleros-



Autoglas-Glavistako langile bat Guardianen lantegiko atarian pegatinak jartzen. Aiaraldea.eu

keta prozesua". "Enpresa batzordetik hainbat hilabetetik hona salatzen aritu garen erruduntasunek badirudifuntsnahiko adu-tela epaile batek autoa erredaktatzeko, dokumentazio mordoa eskatuta".

Antzeko balorazioa egin dute LABeko kideek ere: "Guardianek, haizetako atalaren salmenta egin zuenetik, orain arteko prozesu honen erantzulea dela juridikoki frogatzeko bidean gaude. Horregatik, Glavistaren itxieragatik eta 240 lanpostu suntsitzeagatik erantzun behar du. Horrek ere argi uzten du Guardian dela gatazka honi irtenbidea emateko giltza duena. Eta, era berean, Eusko Jaurlaritzak prozesu honetan esku hartu eta eragotzi egin behar du diru-laguntza publikoek onuratu den enpresa batek maniobra horien bidez enplegua suntsitu ahal izatea".

Horri lotuta, LABek azpimarratu du "borroka bizirik" mantendu behar dela, "presioa" egin

ELA eta LAB sindikatuek eginiko eskaera onartu du Gasteizko Epaitegiak

behar delako "lanpostu guztiak bermatuko dituen irtenbidea bilatzeko". Ildo horretan, Autoglas-Glavistako enpresa batzordeak asanblada egin zuen iragan astelehenean, "egoeraren berri eman ahal izateko eta datozen asteetarako borroka-plan teamendua langile guztiarekin landu eta konpartitzeko". Guardian

multinazionalak 2020an saldu zion bere haizetako azpi-saila (Autoglas-Glavista gisa eza gutzen dena gaur egun) Parter Capital inbertsio funtsari. Sindikatuek salatu dutenez, salmenta hori egun batetik bestera egin zen, Alcoako kasuak ez-tanda egin baino egun bakan batzuk lehenago.

QUICK PC REPAIR



Informatika argi eta erraz

- Salmenta · Konponketak
- Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxeetarako
- Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANARI** buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickcrepair.es · quickcrepair@quickcrepair.es

ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA
gainkosturik
gabe

Adinekoa
bazara eta etxea
partekatu nahi
baduzu Eusko
Jaurlaritzaren
programarekin:

Kontaktatu
623 06 46 84

Euskadi, auzolana

elkarrizketa



MAITEDER INTXAURRAGA (Orozko) BULARREKO MINBIZI METASTASIKOAREN ELKARTEAN ARITZEN DA ETA TALDEAREN JARDUERAREN ZEIN GAIXOTASUNAREN INGURUAN MINTZATU DA.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

komunikatzen gara eta ahal ditugun ekintzak burutu ditzazkegu.

Zein da bularreko minbizi metastasikoaren berezitasuna?

Egun bularreko minbizia %80an sendatzen da, baina %30ek ikusten du minbizia itzultzen dela metastasi moduan. Hau da, gorputzeko beste atal batean agertzen dela: burua, hezurak, birikiak... Momentu honetan gaixotasunak ez dauka sendabiderik, soilik tratamendu batzuk, mugatuak, eta bukatzen direnean, zorte ona baduzu, entseguak daude bizitza luzatzeko.

Estatistikek esaten dute bost urteko bizitza itxaro-

pena duela gaixoak, batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago.

Kontua da askotan bular minbizia gainditu duen emakume batek ez duela, neurri batean, ikusi nahi beste alde hau. Apur bat ezkutatuta gaude.

Bularreko minbiziaren kasuan "ospatu" da gehien-go zabalak gainditzen duela, baina hau ez da horrenbeste aipatzen.

Guretzat urria oso hilabete gogorra da. Hilabete arrosa deitzen diote eta ospatu da. Ikusgarritasuna ematen zaio, baina sendatzen denari. Beti ere kontuan hartuta hamar urteren ondoren berriro ager daitekela minbizia.

Elkarte batean aritzen zara, nolakoa da?
Estatu espainiarrean dagoen elkartea da, Bularreko Minbizi Metastasikoaren Elkartea. Sortu zen emakume batzuek Facebooken sartu zirelako, bularreko minbiziari lotuta. Edonola ere, metastasi hitza erabiltzen hasi zirenean, beste emakumezkoek ekin zioten taldea uzteari, ez zirelako eroso sentitzen.

Orduan euren kabuz Facebook kontu propioa egin zuten bularreko minbizi metastasikoari buruzkoa. Gero emakume pilo sartu zenez, elkartea sortu zuten. Herrialdeko Whatsapp taldeak ditugu eta horrela

elkarrizketa

“Elkarterik gabe egunerokoa erokeria litzateke, oso bakarrik sentitzen baikara”

“Errutina berria topatu behar dut bizitzari zentzua emateko”

Hala ere, kanpaina gehienetan ez dugu gure burua islatuta ikusten. Esaterako, agertzen dira emakumeak telebistan zapiarekin, baina izugarri politak eta tratamenduan dagoen edozein pertsona ez dago horrela, ez dauka aurpegi polit hori, ez ilerik buruan.

Beste batzuekin bai, baina normalean ez dira hain grafikoak izaten. Horrez gain, enpresek gai honi lotuta egiten dituzten kanpainetan ondo erreparatu behar zaio zertara bideratzen duten dirua. Dohaintzekin gauza bera, jakin beharra dago zer gertatzen den diru horrekin, maiz publizitatea baino ez da. Horrek haserretzen gaitu.

Bular mimbizi metastasikoari buruz oso gutxi hitz egiten da hilabete honetan. Aurten zerbaite gehiago ikusi dugu. Adibidez, Madrilén Sol metro geltokian

dagoen "M" handi hori kendu zuten, bularreko minbizia aipatzen denean metastasikoa ahazten dela adierazteko. Kendutako "M" hori metastasikoa adierazi nahi zuten.

Zuk nola jakin zenuen zure diagnostikoa?

Nik banekien zer zer bularreko minbizi metastasikoa, hortaz, beldur nintzen eta ez nuen ikusi nahi, beste hainbat emakumeren moduan. Diagnostika oso zaila eta gogorra da. Nire kasuan, bularreko minbizia sendatu eta urtebetera jakin izan nuen. Txarto sentitzen nintzen eta esaten zidaten antsietatea zela, baina banekien zerbaite nuela.

Azkenean, tematu nintzen, probak egin zizkidaten eta metastasia nuen buruan. Esan zidatenean buruan zela, okerreana espero nuen. Izan ere, beste gaixotasun kide batzuk ikusten badituzu, hezurretan edo beste atal batzuetan dute eta gutxi gorabehera aurrera egiten dute, baina buruak gorputza kontrolatzen du. Ondorioak geratu zaizkit eta hasieran pentsatu nuen, minbiziak aurrera egingez gero, agur esan beharko nuela. Oso denbora gutxian nabaritu nuen okerrera egiten zuela eta oso beldurtuta egon nintzen. Tratamenduaren bizitza ostean geldirik dago eta bizitzen saiatzen naiz.

Ezin dut lanik egin eta dena hankaz gora daukat. Errutina berria topatu behar dut bizitzari zentzua emateko, 39 urte baititut eta ezin dut bizitza arrunta egin.

“Lehen diagnostikoaren ondoren pentsatu nuen hilko nintzela, eta bigarrena agertu zenean, dudarik ez nuen”

Nolakoa da elkartean zuen arteko harremana?

Duela urtebete eta erdi nabil elkartean eta hasieran pilo lagundu ninduten. Izan ere, lehen diagnostikoaren ondoren pentsatu nuen hilko nintzela, eta bigarrena agertu zenean, dudarik ez nuen. Gero hitz egin nuen elkarteko kideekin eta urteak daramatzate batzuek diagnostikatuta.

Egia da hurbilago ikusten duzula heriotza, kontzienteagoa zara, eta denbora gutxian hel daiteke. Ez dakizu zenbat denbora izango den, batzuentzat bi urte, besteentzat bost edo hamar. Dena da estatistika eta bakoitzaren gorputza.

Elkartean ezagutu dut jendea denbora luze daramana diagnostikoarekin eta horrek laguntzen du. Adiskideak ere egin ditut eta, arazoren bat izanez gero, haiengana jotzen dut. Gehienbat beteranoentzako galderak dira.

Elkartearrekin oso bakarrik sentitzen zara egunerokoa, hortaz, elkarterik gabe eromena litzateke.

elkarrizketa

“Bost urte hauetan aztarnategiko puntu ia guztiak aztertu ditugu”



JON OBALDIA (Izoria, 1990) BARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ARKEOLOGOA DA, ETA BABIOKO BURDIN AROKO HERRIXKAKO INDUSKETEN ARDURADUNA. BURDIN AROKO AZTARNATEGIAN AZKEN KANPAINETAN AURKITUTAKOAZ MINTZATU DA.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**
Testua **Aranzadi**

Zerkosatzen du zehazki Babio-ko aztarnategia, eta noiz deskubritu zen?

1980 eta 1981 urteen artean topatu zuten Babioko aztarnategia Maria Jose Yarrituk, Javier Gorrotxategik eta Jose Luis Martinezek. Horiek inbentario bat egiten ari ziren Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, eta lanean zuedela identifikatu zuten herrixka, Brontze Aroko amaierako edo Burdin Aroko aztarnategi bezala definitu zuten.

Aurkikuntzatik hilabete gutxira, Felix Murga Amurrioko parrokoa eta Armando Llanos Burdin Aroari dagokionean Araban dagoen eminetziarik handiena Babiora bertaratu ziren. Zundaketa egin zuten, herrixkako lehenengo harresiaren kanpoaldean. Suharri bat eta leungailu bat topatu zituzten. Hortaz gain, ez zuten aparteko piezarik aurkitu.

Aztarnategiak bi harresi dauzka: lehenengoak 246 metro ditu eta bigarrenak 560. Osotara hamar hektareako aztarnategia da. Nahiko zabala da Burdin Aroko aztarnategia izateko, kasu arraroa da.

1980ko hamarkadatik ez zen beste ikerketarik egin bertan. 2010ean indusketa egiteko saiak egin zen, baina ez zen aurrera atera.

Ni 2018an batu nintzen proiektura. Urte horretan Aztaran Etnografia Elkarteak Babio industeko asmoa zuen, eta proiektua gidatzeko arkeologo bila zebiltzaten. Ni Aranzadin sartu nintzen urte horretan bertan, eta onartu egin nuen proiektua.

Urte horretan zundaketa batzuk egin genituen. Zortzi zundaketa eta bigarren harresian ebakidura baten garbiketara. Material ugari topatu genuen, eta kontserbazio maila ona zela ikusi genuen. Aurkikuntza horiek guztiak baliatu genituen, orain esku artean dugun proiektuari ekiteko. Ikerketa proiektua da, bost urteko luzera izan duena, eta orain berriro berritzeko asmoa duguna.

Burdin Aroko herri harresitua da Babion induskatutakoa. Aurkikuntzak zein puntura arte egiten du bat garai berean datutako inguruko aztarnategien nolakotasunarekin?

Bailaran badaude Burdin Aroko beste hainbat eredu. Urduñatik gertu, Delika inguruan, Santa Ageda izeneko aztarnategi bat dago. Hortik gertu bada beste

bat Santa Cristina deritzona, Armando Llanosek aurkitutakoa. Babio litzake hurrengoa, eta Babiok zazpi kilometrorera Peregañan bada beste aztarnategi bat, gure inguruan dagoen handiena.

Beraz, aztarnategiak egon badaude. Kontuan hartu behar dugu ere, gure mendietan pinudi asko daudela, eta horren ondorioz aztarnategi asko suntsituak edo identifikatzeko zailak direla.

Nik MALean ikertu nuenaren arabera, eta orain etorkizuneko tesian sakontzen ari naizenaren arabera, ondorioztatu dugu aztarnategi horiek guztiak bailarako irteera edo sarreretara begira daudela. Hau da, kasu honetan, Babioko herrixka Nerbioiko bailarari begira dago zuzenean; eta modu honetan kontrolatzen zuten bertatik igarotzen zen jende guztia, etsaiak, merkantziak... Horregatik daude Burdin Aroko herrixka hauek Babio eta Peregaña bezalako tontorretan, inguruaren kontrol geoestrategiko guztia zutelako.

Brontze Aroaren amaiera eta Burdin Aroaren hasiera oso garai ezegonkorra izan zen. Migrazio handien garaia izan zen, hori dela eta leku babestuetara jo zuten herriak eraikitzeko.

“Ikerketa proiektua da, bost urteko luzera izan duena, eta orain berriro berritzeko asmoa duguna”

Zer nolako egiturek osatzen dute Babioko herrixka harresitua?

Kategoria honetako aztarnategietan, harresitik alboetara dagoen tarte bat aterratu egiten zuten; maldan dagoen eremua laua bihurtu eta bertan eraikitzen zituzten etxebizitzak.

elkarrizketa

Babioko bi harresietan identifikatu dugu etxebizitzak gainean eraikitzeko aterrazamendu antropiko hori. Oraindik ez dugu topatu zer nolako forma zuten etxebizitza horiek; ez dakigu oin-plan-ta zein motatakoa zen. Baina badakigu egon bazuedela.

Gainerako eremu guztian, mal-dan geratzen den horretan, abereak gordetzen zituzten. Abereak ziren bertako biztanleen aberas-tasun iturria. Nekazaritza ere menperatzen zuten, topatu izan ditugu gari haziak, esaterako.

Aztarnategian abereen hezur pilo topatu dugu, gehienak obikapridoenak; ahuntzak eta ardiak. Horrekin batera gazta egiteko zeramika zati bat ere topatu dugu. Informazioa biltzen jarraitzen dugu, eta deskubrituz goaz pieza guztiek *enkajatzan dutela*.

Harresiko sarbideak ere identifikatuz goaz. Hori egon gara ikertzen azken urte honetan, eta gutxi gorabehera badakigu non dauden sarrera nagusiak. 2019an eten bat topatu genuen harresian, poterna deitzen den egitura da

“Brontze Aroaren amaiera eta Burdin Aroaren hasiera oso garai ezegonkorra izan zen. Migrazio handien garaia izan zen, hori dela eta leku babestuetara jo zuten herriak eraikitzeko”

hori, eskubidezko pasabide bat, harresian bidezidorra litzakeena.

Harresiarekin jarraituz, deskubritu dugu ere lehenengo harresia buztin egosiko kapa batekin luzitua dagoela. Momentu honetan dugun teoria da harria babesteko baliatu zutela. Izan ere kareharri tupatsua da bertako arroka nagusia, eta oso erraz higatzen da. Nahiko bitxiak dira bi aurkikuntza horiek; bai poterna eta baita horma luzitua ere ez dira oso ohikoak.

Nekropolia identifikatzea da falta zaigun gauzetako bat. Burdin Aroan oro har hildakoak ehortzeko erabiltzen zuten teknika errausketa zen. Errauskak zeramikazko ontzi handian sartzea, lurtean zuloa egitea, ontzia lurtean sartzea eta harri batekin estaltzea zen, teorian, inguru Atlantikoan egiten zuten erri-tuala.

Babiora itzulita, jakin badakigu herri Iberiarrek edo Zeltiberiarrek nekropoliak herrixken kanpoaldean izaten zituztela, sarbideetatik gertu. Balizko

“Nahiko bitxiak dira bi aurkikuntza horiek; bai poterna eta baita horma luzitua ere ez dira oso ohikoak”

nekropoli horren bila, Babion dagoen frantsezen koban sartu ginen. Bere garaian, 1981ean, Felix Murgak eta Armando Llanosek bi gorpuzki topatu zituzten bertan. Une honetan ez dakigu hezur horiek non dauden; ez daude BIBAT museo arkeologikoan, ezta Felix Murgak zuen museoan ere ez... galduta daude. Argazki bat badago, eta kokapenaren inguruan hezur gehiago bilatu genituen, baina ez genuen ezer topatu. Beraz oraingoz ezin izan ditugu bertako balizko hezur-rak eta Burdin Aroko herrixka korrelazionatu. Kondaira bat badago, agian gorpuzki horiek Independentzia Gerran aritu ziren frantsez batzuneak izan daitezke, baina hezurak aurkitu ezean ezingo dugu jakin.

Eraikuntza fase desberdinak identifikatu dituzue ere?

Bai, maila ezberdinak ikusten dira. Zaharrena Brontze Aroaren amaierakoa litzake; bertan ikusten da harresiaren oinean nibelazio maila.



19. kataren (ikus mapa) indusketa, Babio mendiko Burdin Aroko aztarnategian. Aranzadi

elkarrizketa

Zer nolako objektuak eta aztarnak aurkitu dituzue Babion egindako kanpainetan?

Orokorrean denetarik aurkitu dugu, zeramikazko materialei dagokienean. Biltegitratzeko zeramikak aurkitu ditugu, tamaina eta lodiera handikoak. Dekoraturako plater eta ontzi txikiak ere agertu zaizkigu. Dekorazioaren aldetik ere oso gauza anitzak topatu ditugu: kordoi formako markak, hatz-markak...

Metalezko hainbat elementu ere topatu ditugu, errematxeak nagusiki. Aurten topatu dugu piezari apartekoena; gerriko dekoratu bat da. Filigranak ditu, oso polita da. Zaharberritzen ari dira une honetan. Asier Perez de Eulatek burdinezko lantza punta bat topatu zuen aspaldi Babioko lubakietan egindako indusketa batean, *verutum* bat izan zitekeen hori, hau da, ehiza egiteko edo Erromatarren tropak erabiltzen zuten horietakoa. Erromatar aztarna gehiago topatu dira, *pilum* lantza baten pasadorea esaterako.

“Karbono 14 teknika erabiliz daukagun dataziorik zaharrena kristo aurreko 740. urtekoa da, eta modernoena, berriz, kristo aurreko 420-430. urtekoa”

Aztarnategiko arrastoak datazko aukera izan duzue.

Orotara zazpi datazio egin ditugu, eta zortzigarren laneari ari gara orain. Orokorrean, daukagun dataziorik zaharrena kristo aurreko 740. urtekoa da, eta modernoena, berriz, kristo aurre-

ko 420-430. urtekoa. Datuok Brontze Aroko amaieraren eta lehenengo Burdin Aroaren artean kokatzen dute herrixka bete-betean.

Hainbat elementu dira datatu ditugunak, karbono 14 teknika erabiliaz. Normalean ikatza da erabiltzen dena, baina guk animalien haginak baliatu ditugu, kolagenoaren proba eginez. Hain zuzen ere, animalien haginekin egindako datazio batek eman zigun K.a. 430 urteko adina. Haziak ere baliatu izan ditugu, kronologia oso mugatua eskaintzen dutelako. Datatutakoek K.a. 500 urteko adina eman ziguten.

Zein zen datatutako garai historikoaren testuingurua inguruotan?

Iturri klasikoetara jotzen badugu, une horretan Aiaraldean bizi zirenak Autrigoiak zirela ondorioztatzen da. Kontuan hartu behar dugu iturri klasikoetan jasota dagoena 300 urte beranduago idatzia izan zela. Idatzi zutenaren eta errealitatearen zegoenaren artean alde handia egongo da ziurrenik.

Badakiguna da Brontze Aroaren amaiera migrazio handien garaia izan zela, Europa erdialdeko herri asko etorri ziren hona. Hain zuzen ere, migrazio horietatik babes-teko asmoz uste dugu jo zutela Babi bezalako inguru segurua-goetara.


Bizimoduari dagokionez, abeltzainak ziren nagusiki. Erromatarrek Saltus bezala ezagutzen zuten zonaldea, ez da nekazaritzarako aproposa. Gaur egunera arte ere iraun du abeltzaintzaren tradizioak.

Kontuan hartu beharreko beste ezaugarri bat da biztanleen gehiengoa ez zela bizi Babioko bezalako herrixketan, baizik eta bailara osotik sakabanatuta. Ahalik eta espazio gehien lantzeko beharra zuten bizirauteko: basoak, errekek, kobazuloak... Klima kaskarragoa zen, hiru-lau gradu gutxiago egiten zuen oro har.

Orokorrean ez daukagu garai horren inguruko informazio askoz gehiagorik, Santa Agedako eta Babioko aztarnategietaz gain, ez da besterik induskatu; datuak falta zaizkigu oraindik.

Gorobel inguruan badira megalito ugari, zer erlazio dute Babioko bezalako aztarnategiekin?

Megalito horiek Brontze Arokoak dira nagusiki. Gerora, denborarekin berrerabiliak izan diren espazioak dira horiek. Inguru



aranzadi


ZIENTZIA ELKARTEA · SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY · SOCIÉTÉ DE SCIENCES

Izenburua:

Zuzendaria:

Topografia-oi

elkarrizketa



BABIO HERRI HARRESITUA. 2023. V. EKINALDIA. Indusketa Arkeologikoaren Proiektua

BABIO (Izoria, Araba). 1. Indusketa-eremua. Programatutako katak eta ebakiduraren garbiketa

Jon Obaldia Undurraga

Planoa: A.M.V.

Data: 2023ko apirila

na: GeoEuskadi. Ortofoto azkarra 2021. 1:2.500

Orria: 2

elkarrizketa

horiek betidanik dira bertako biztanleen erritoekin edo ohiturekin lotutako tokiak. Gorobelen badira 200 kobazulo baino gehiago.

Almagro Gorbea historialariak erlijiotasun immanenteko leku bezala definitu zituen sentimendu erlijiosoak sortzen zituzten ingurune naturalak. Horrekin lotuta egon daiteke adibidez Ungino mendiko begia; hortik bailara osoa ikusten da, baita Peregaña eta Babio ere, Burdin Aroko herrixkak dauden gunek.

“Orokorrean ez daukagu garai horren inguruko informazio askoz gehiagorik, Santa Agedako eta Babioko herrixkaz gain, ez da besterik induskatu; datuak falta zaizkigu oraindik”



Ezkerretik eskumara eta goitik behera: 15. kata, 19. kata, 2023ko bisita gidatuen argazkiak. Aranzadi

2018an lehenengo kanpaina egin zenutenetik, nola antolatu zarete aztarnategia induskatzeko?

2018koa Aiarako Udalak eta Izoriako Kontzejua finantzaturako proiektua izan zen. Hortik ateratako datuekin ikerketa proiektua abiatu genuen 2019an, hori Aiarako Udalak finantzatu du.

Aranzadi bitartez inkesta bat zabaltzen dugu urtero, eta kanpainan parte-hartu nahi duen jendeak izena ematen du. Lan boluntarioa da nagusiki, baina ikertzaileen bat ere kontratatu izan da aztarnategian topatutako materiala aztertzeko. Babiora etorritako boluntario gehienak Andaluziatik etorritakoak dira.

Egindako kanpaina guztiek bi asteko iraupena izan dute,

eta abuztuko lehenengo hamabostaldian egin izan ditugu beti. Horrekin batera bisita gidatuak ere antolatu izan ditugu, kanpainaren lehenengo astea igarotakoan.

Bost urte hauetan aztarnategiko puntu ia guztiak aztertu ditugu, bai harresiaren barrukaldekoak baita kanpoaldekoak ere. Datorren urteari begira, gure asmoa da *open area* izeneko teknikarekin 15x15 metroko zonalde bat ikertzea. Eredu hori lehenengo harresiaren barruan dago, eta lehen aipa-

“Asmoa da dibulgazio liburuxka bat osatzea, guztion eskura egon dadin informazioa”

tutako terraza hartzen du bere baitan. Horren helburu nagusia da etxebizitza baten oinplanta topatzea da.

Non bildu duzue urte hauetan guztietan aztarnategitik ateratako material arekologikoa?

Legeak esaten duen bezala, material guztiak BIBAT museora bidali behar ditugu, Arabako Museo Arkeologikora, hain zuzen ere. Bertan gordetzen dira ikerketa abian dagoen bitartean.

Nola aurreikusten duzu ixtea ikerketa lan hau guztia?

Ideia da beste hiru urtez aritza ingurua induskatzen. Gero topatutako material guztia eta memoria guztia bateratu egingo dugu. Asmoa da dibulgaziorako liburuxka bat osatzea, guztion eskura egon dadin informazioa.

Azkenik Izorian eta Amurrion aztarnategiarekin lotutako kartelaria jarri nahi dugu. Bisitariak hurbiltzen direnean modu erraz batean ezagutu dezaten bertan dauden elementuak: defentsa sistema, bizimodua, kokalekua...

elkarrizketa



Goitkm behera: Gaztanohol baten arrastoak / 2023ko bisita gidatua / Bigarren ebakidura barruko horma eta poterna. **Aranzadi**



Gorobel Mendi Ibilaldiaren edizio berria egingo dute azaroaren 5ean

Ohi bezala, azaroko lehenengo igandean Gorobel Mendi Ibilaldiaren edizio berria antolatu du Amurrioko Mendiko Lagunak Taldeak. Ekimenaren XXXVII. edizioa izango da, azaroaren 5ekoa

Izen-ematea urriaren 9an zabaldu zuten, eta urriaren 22ra arteko epea egon da. Aurten 1.200 izen emate onartuko ditu antolatuntzak, iaz baino 200 inskripzio gehiago. Mendiko Lagunak Taldeak Aiaraldea Komunikabideari aurreratu dionez, epemuga

agortu baino lehenago bete ziren emate guztiak.

Hiru ibilbide Gorobelen barrena

Azken edizioetan egin bezala hiru ibilbide desberdin prestatuko dituzte, Gorobel mendilerroko bideetan barrena. Ibilbide nagusiak 42 kilometroko luzera izango du. Mendilerroko atakatik igoko da mendilerroaren goialdera, eta Ungino, Eskutxi, Urieta edota Tologorri gailurrak zeharkatuko ditu.

Ibilaldi ertainean parte hartuko duten mendizaleek Menerdigako bidea hartuko dute ere, eta Ungino eta Tologorritik igarostean, Paso malotik jaitsiko dira, guztira 26 kilometroko zirkuitua osatuz. Azkenik, mar-txa txikiak 10 kilometroko ibilbidea osatuko du; Juan Urrutia plazatik Babio mendiraino.

Aiaraldea Komunikabideak, babesleeta-ko bat izanik, probaren jarraipen berezia egingo du eskura dituen komunikazio eskarrietan.

HITZALDIAK ETA TAILERRAK

10.25 Asteazkena

16:30 AMURRIO
WIKITXOKO
Ezagutza librea sustatzeko tailerra
Liburutegia

10.25 Asteazkena

18:00 LAUDIO
EZ IGARO BIZITZATI, BIZI
EZAZU
Belén Andresen hitzaldia
Asasam elkarteak antolatuta
Kultur Etxea

10.26 Osteguna

18:00 AMURRIO
ANTZINAKO EMAKUME
HANDIAK: EGIPTO
Eva Tobalinak eskainitako hitzaldia
Nagusien Etxea

10.27 Ostirala

18:00 AMURRIO
LURRAREN DEFENTSAN
Medicus Mundi eta Setem
Kontsumo alternatibei
buruzko ikus-entzunezkoak
eta solasaldiak
Amurrio Antzokia

10.28 Larumbata

12:00 LAUDIO
ARTEA, EMAKUMEA ETA
ESPETXEA
Itziar Morenok gidatutako hitzaldia
Faktoria

10.28 Larumbata

17:00 LAUDIO
DANTZA URBANOKO
TAILERRA
Onea Bergararen eskutik,
Kale Arte egitasmoaren II.
edizioaren barruan
Faktoria

11.04 Larumbata

10:00 URDUÑA
SUKALDARITZA
MIKOLOGIKOKO TAILERRA
Udazken Gastronimikoa
Alondegia

11.04 Larumbata

17:00 LAUDIO
RAP TAILERRA
Kale Arte egitasmoaren
II. edizioa. Rap tailerra, Ane
Guria Bilbotarren eskutik
Faktoria

IKUSKIZUNAK

10.25 Asteazkena

17:30 URDUÑA
"BIDAIA LILURAGARRIA"
Perli and Koxkolo ipuin
kontalariak
Alondegia

10.28 Larumbata

20:00 AMURRIO
IESE NO!
Antzerki ez-profesionala
Amurrio Antzokia

11.03 Ostirala

20:00 LAUDIO
BARIKUAK PLAZA EGUNAK:
IKATZA ETA GIROA
Marrasketa eta soinua
Faktoria

KIROL JARDUERAK

10.27 Ostirala

18:30 URDUÑA
URDUÑA MENDI-FEST
Monarca Expedition
Alondegia

10.28 Larumbata

10:00 ARRANKUDIAGA
ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO
X. TRAIL LASTERKETA
Herriko plaza

11.05 Igandea

07:00 AMURRIO
XXXVII. GOROBEL
MENDI IBILALDIA
Juan Urrutia Plaza

TXANGOAK

10.26 Osteguna

10:00 AMURRIO
LADOSARA TXANGOA
Torrealdea erretiratuen
elkarreak antolatuta
Telefonika

10.29 Igandea

09:50 OROZKO
XXII. GAZTAINA EGUNA
Kirikinausietara txangoa
eta herri bazkaria, Supelaur
Elkarreak antolatuta
Alondegia

10.29 Igandea

10:00 URDUÑA
IRTEERA MIKOLOGIKOA
Udazken Gastronimikoa
Alondegia

BESTELAKO EKINTZAK

10.28 Larumbata

10:00 ARTZINIEGA
HERRI PUTXERA LEHIAKETA
Txoko La Jarrillak antolatuta
Goiko Plaza

10.29 Igandea

13:00 ARTZINIEGA
AGERRALDI FEMINISTA
Azaroaren 30eko Greba
Feminista Orokorra deitzeko
Toñin Luengas frontoia

10.31 Asteartea

Arimen Gauak

dibertimendua
zabalduko du



Azken urteetan Arimen Gauaren ospakizunak berreskuratu dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan, Aiaraldean tartean. Erro horietatik tiraka, beldurra eta dibertsioa uzartzeko hamaika ekintza prestatu dute hurrengo egunetarako Aiaraldean. Gehienak haurrentzat badira ere, badaude helduei bideratutako zenbait ere. Orozkon, Laudion edota Urduñan edota egin dituzte deialdiak besteak beste

Gaztaina Egumaren

XXII. edizioa ospatuko dute
igandean Orozkon



Gaztaina Eguna ospatuko dute oroz-koarrek igandean. Urtero bezala Superlaur elkarteak ekimenaren edizio berria prestatu du, aurtengoa XXII. aizango da zehazki.

Gaztainakeuska jendartean duen garrantziagoraitzeko eta honen bilketara ospatzeko eguna izango da urriaren 29a, eta, horretarako, mendi ibilaldia eta herri bazkaria egingo dituzte.

Igandean 9:50ean autobusez abiatuko

dira Hegoaldetik, kirikino hesien mendi ibilalditari hasiera emateko. Autobusak Usabelen utziko ditu mendizaleak eta bertatik ibilaldi gidatua abiatuko dute Telleri, Lastrabe eta Irukusgietan barrena. Irukusgietan gaztaina eta txorizo dastaketa egingo dute, eguraldia la- gun baldin badute.

Egunari amaiera emateko herri bazkaria egingo dute Zubiaur auzoko frontoian, 14:30ean.

Kartelera



AMURRIO ANTZOKIA
Ninja Turtles
URRIAK 29
IGANDEA (3,5 euro)

17:00



AMURRIO ANTZOKIA
La voz del Sol
URRIAK 29
IGANDEA ETA ASTELEHENA (5 / 3,75 euro)

19:00



DONIBANE ARETOA
La gigante
AZAROAK 05
IGANDEA (3,5 euro)

16:30



DONIBANE ARETOA
Los asesinos de la luna
AZAROAK 05
IGANDEA ETA ASTELEHENA (5 / 3,75 euro)

19:00

10.26 Osteguna

18:00 LAUDIO
"LES VISIBLES"
Frankismo garaiko LGBTI+ memoria historikoa berreskuratzeko helburu duen dokumentala
Lezeaga Aretoa

10.27 Ostirala

18:00 OKONDO
IPUIN-KONTALARIA
Arimen Gauaren barruko egitaraua
Gimnasioa

10.27 Ostirala

20:00 LAUDIO
BARIKUAK PLAZA EGUNAK:
PATATA MINAK
Entsegu irekia
Faktoria

10.31 Asteartea

18:00 OROZKO
"ZURE AURPEGIA EZAGUNA
EGITEN ZAIT!" LEHIAKETA
Arimen Gauaren egitarauaren barruan
Frontoia

10.31 Asteartea

18:00 LAUDIO
IRAKURKETA ERRAZA EDUKI
FEMINISTEKIN
Udal liburutegia

INFO +

aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



WhatsApp

Jaso Whatsappean eguneko edukiak,

688 848 152 zenbakira

AIARALDEA GAUR

mezua bidalita!



TELEGRAM

Batu Telegramera

t.me/aiaraldea.eus

esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



kultura



“Irrintziari begirada garaikideagoa eman diogu”

AIARALDEKO IRRINTZILARIAK DIRA **GURENE GRANDE, NEREA IGLESIAS ETA PAKI OFIZIALDEGI**. AZKEN HILABETEA IRRINTZIARI BURUZKO SORMEN LABORATEGI BATEAN MURGILDUTA EMAN DITUZTE.



Testua eta argazkiak
Almar Gutierrez Bidarte

YouYou-Irrintzi sormen laborategia gauzatu berri duzue Faktorian. Zein da proiektuaren abiapuntua?

Nerea: YouYou-Irrintzi proiektua dator 2022an Flandrian egindako bisita kultural batetik. Faktoriako kide bezala bertan izan nintzen, eta bertan ezagutu nuen The YouYou Group.

2023an Flandria eta Euskal Herria sartzeko diru-laguntza marko bat aurkeztu zuten, nolabait ere bi herrialdeen arteko lankidetzeta eta harremana indartzeko asmoz. Deialdi horri erantzunez, eta hemen, Orozkon, irrintzi tradizio handia zegoela aprobeztatuz, iruditu zitzaidan proiektu interesgarria gara genezakeela gaiari lotua.

The YouYou Groupi hasieratik oso ideia polita iruditu zitzaien. Oso gogotsu zeuden irrintziaren munduan murgiltzeko. Denbora luzea eman genuen bilerak egiten eta proiektua definitzen.

Zer talde mota da Flandriako The YouYou Group?

Paki: YouYou irrintziaren tankerako oihu bat da, baina Afrika Iparraldekoa. 2014an Bruselan elkartu zen nagusiki emakumez osatutako talde bat, oihu horren inguruan aztertzeko. Urte hauetan guztietan mundu osoko gisa honetako oihuak aztertu izan dituzte.

Gurene: Ekinzta bakar bat prestatzeko sortu zen The YouYou Group hasiera batean, baina oso interesgarria iruditu zitzaien egindako lana eta segida ematea erabaki zuten, bestelako oihuak ezagutuz. Taldeak mundu osoko oihu desberdinak ikertzen ditu, eta, gerora, euren ikuskizunak egiteko baliatzen dituzte ikerketen fruitu guztiak. Oihu bakoitzaren zaratak banatu egiten dituzte eta sormen pieza osoak garatzen dituzte horrekin.

Nerea: Ikerketa horiek praktikoak izaten dira nagusiki. Lehenik eta behin praktika artistikoa garatzen dute, gero teknikan sakontzen dute, eta, azkenik, praktika sozio-kulturala egiten dute; hau da, jendearen historiak partekatzea. Oihuen atzean dauden pertsonak elkar ezagutzea taldearen parte garrantzitsua da: zergatik egiten duten oihu, non ikasi zuten... Euskal Herrira etorri aurretik, antzeko esperientziak garatu dituzte Frantzian, Israelen eta Alemanian. Hemengo esperientzia, ordea, nahiko berezia izan zaie. Izan ere, normalean, hiriburretan egiten dute lan; oraingoa izan da lehenengo aldia landa-eremura jo eta jatorri bakar bateko pertsonekin lan egin izan dutela, guztiak irrintzilariak. Nabaritu dute kultura identitate oso errotua dugula hemen.

Nolakoa izan zen proiektuaren garapena?

Nerea: Hasierako saioak elkar ulertzera bideratu

genituen. Hots, bagenekien Euskal Herrian irrintzia bazegoela, baina eurak soinu-performaceak egiten dituzten taldea dira, gu, aldiz, egitura kultural bat. Orduan lan handia egin genuen norberak proiektura zer eskaini zezakeen argitzeko. Hau da; gu, esaterako, ez gara konpainia bat duen espazio kulturala.

Argi genuena zen irrintzia den ondare inmaterial horrekin zerbait egin nahi genuela; transmisioa landu, besteak beste. Bide komun bat topatzen eman genituen zenbait hilabete. Hasieran, gainera, ez genekien jendea animatuko zen edo ez proiektuan parte hartzera; eskualdeko irrintzilariak, oro har, ez dira artista bokalak, kaleko jendea baizik.

Oso erraza izan zen motibazioa aurkitzea. YouYou taldekoek interes handia zuten irrintzian. Aurretik entzuna zuten, eta berarekin esperimentatu nahi zuten.

Zein da proiektuaren helburua?

Nerea: Proiektuaren muina edo helburua irrintziari begirada garaikideagoa ematea izan da. Ni irrintzilaria eta musikaria naiz, banekien irrintziak beste potentzial bat izan zezakeela, hasieran horri forma nola eman ez nekien arren. Gaur egun oso kokatuta dago folklorean eta festa-giroko momentu esporadiko batean, beste espazio batzuen falta dago irrintzia botatzeko.

Gurene: Ohiko testuingurutik atera nahi genuen irrin-

tzia. Nereak esan bezala, beti hipintzen dugu harremanetan irrintzia abesti baten zati batekin, edo jaietako giro batekin. Baina proiektuan, bere betiko kontestutik atera dugu eta nik uste lortu dugula beste forma bat ematea.

Paki: Irrintiaren posibilitateak aztertu ditugu eta harrituta geratu gara emaitzarekin!

Nerea: Irrintzia sormen tresna bat izan daitekeela ulertu dugu proiektuarekin. Beste helburu inportante bat ere Aiaraldeko irrintzilariak saretzea izan da. Azkenik, proiektuaren azken helbura izan da elkar truke kultural bat egitea Flandria eta Euskal Herriaren artean.

Zein da zuen lotura irrintziarekin, eta nola batu zineten Faktoriako Kultur lantaldeak abiatutako proiektura?

Gurene: Ni Orozkoko jaietan hasi nintzen irrintziak botatzen. Duela hamar urte inguru jaietako irrintzi txapelketan parte hartzera animatu ninduten lagunak. Ordura arte ez nuen irrintzirik bota, baina abesbatzan nengoenez eta ahots ona nuenez oholtzara igoztera bultzatu ninduten. Igo nintzen eta irabazi egin nuen. Geroztik leku askotatik deitu naute irrintziak botatzeko: musika talderen batekin aritu naiz, film-laburren batean azaldu naiz irrintzika, *Amama* pelikulan paper txiki bat izan nuen, telebistara ere gonbidatu naute hainbatetan...

Deialdia zabaldu zuten Faktoriako sormen egonaldian parte hartzeko eta ez nuen zalantzarik izan. Irrintzilari bila zeuden eta hurbildu egin nintzen.

Paki: Ni kasualitatez batu nintzen. Bilera bat egin nuen Nerearekin beste kontu bat lantzeko eta ni koro batean nengoela jakin zuenean bertako irrintzilarien inguruan

“Irrintzia sormenerako tresna bat izan daitekeela ulertu dugu”

galdetu zidan. Esan nion bazeudela irrintzilari bi, baina ezinezkoa zuten proiektura batzea. Nik duela hiru urte ikastaro txiki bat egin nuen. Bizkaiko emakume batek ematen ditu horrelako tailer txikiak. Niri beti gustatu izan zait irrintzia baina ikastaroa egin aurretik ez nintzen botatzera ausartzen. Orain ordea bai. Konfiantza gehiago daukat, teknika asko hobetu behar dudan arren. Oso irrintzi laburrak dira nireak.

Sormen laborategiko lehenengo egunera hurbildu nintzen “bultoa” egitera, hainbeste gustatu zitzaidan hemen geratu nintzela!

Bi sormen laborategi egin dituzue. Zer landu duzue bertan?

Gurene: Bi sormen laborategi egin ditugu. Lehenengoa irailan eta azkena orain, urrian. Azkenengoa intentsoa izan da, bost egun jarraian eman ditugu, egunero hiru orduz. Nire abesbatzan badaude irrintzilari gehiago baina ezin izan dira etorri, hainbesteko dedikazioa ezin ziotelako eskaini.

Paki: Lehenik eta behin YouYou Gorupeko kideekin elkartu ginen eta irrintiaren inguruan hausnartzen egon ginen, elkar ezagutzeko asmoz. Gerora ideiak moldatzen hasi ginen irrintzia sormen tresna bilakatzeko helburuarekin. YouYouko kideek nahiko argi zuten zer nahi zuten egin, gu gutxika-gutxika joan gara bdiea egiten.

Gurene: Sormen laborategiko saioak erlaxatzeko ariketa batzuekin hasten genituen. Gero ahotsak bertzen genituen oihu desberdinak egiteko. Espazioari garrantzi berezia eman diogu ere. Izan ere, gure performancea Faktoirari bertan egin genuen, beraz espazioa aztertzea



kultura

ezinbetsekoa izan da: materialak, lekuak, mugimenduak... Laborategiaren emaitza izan zen performancari begira atal desberdinak prestatuz joan ginen ere, partitura osatuz nolabait. Ariketetako bat gure arteko irrintzi bidezko elkarrizketa bat zen, beste atal bat *blessing* deitzen zuten...

Nerea: Niretzako soinua eta espazioaren arteko harremana izan da sormen laborategiko konturik interesgarriena, nire gorputzaren baitan dauden soinuek nola jokatzaren duten inguruarekin.

Gurene: Hiru gauza nabarmenduko nituzke nik bai: gorputzarne mugimendua, soinua bera eta espazioan zelan mugitu.

Paki: Ez gara geratu soilik irrintziak botatze horretan. Ikuspegi artistiko bat landu dugu, baita bat-batekotasuna ere.

Sorkuntza Laborategiko lana Faktorian aurkeztu zenuten performace batera bideratu duzue.

Gurene: Nahiko abstraktua izan da. Nik arte ederrak ikasi ditut eta horrelako gauzetara ohitua nago. Hau ere oso abstraktua eta konzeptuala izan da.

Paki: Nik lagunak ohartarazi nituen: “etorri baina pentsatuko duzue hauek zoro daudela”. (barreak)

Nerea: Inprobisazioa izan da, baina nahiko gidatua. Premisa oso argiak genituen ikuskizunean zehar: hiru rol genituen soilik, eta horiek tartekatzea zen helburua. Taldearen koordinazioa eta elkar nola sentitzen dugun izan da gehien bat landu eta taularatu duguna.

Pozik ikuskizunaren emaitzarekin? Zer sentsazio jaso duzue ikusleen partetik?

Gurene: Nik uste taldea, oro har, nahiko pozik atera dela. Egia da inprobisazioak nahiko beldurtzen gintuela. Guk gidoi bat osatu nahi genuen, baina emaitza oso txukuna izan da. Publikoa ere oso gustora geratu zen. Oso ondo ulertu eta oso ondo sentitu zen transmititu nahi genuena; irrintzia moldatu eta garaikidetu dugula.

Nerea: Oso hunkigarria izan zen. Ni berriz egiteko gogoekin nago, uste dudalako Faktorian ikuskizuna eskaini genuen egunean oso urduri geundela, eta gauza batzuk oso azkar egin genituela. Lan artistikoak *posoa* hartzen du egin heinean. Gehiagotan egin behar dugu hau guztia nola garatzen doan ikusteko.

Paki: Oso emozionantea izan zen. Hasieran egia da oso azkar joan ginela, biana erlaxatu ahala asko disfrutatu genuen. Ni oso pozik atera nintzen.

Gurene: Ikuskizunaren ostean egin genuen solasaldian aipatu zuten hizkuntza berri bat garatu genuela, eta hori oso definizio polita iruditzen zait.

Irrintziaren historiaren eta norberak oihuarekin duen harremanaren artean ikasteko parada ere izan duzue?

Gurene: Taldean egon da nagusiagoa den emakume bat, Rakel, eta berak bai kontatzen zuen bere gurasoengandik ikasi zuela irrintziak botatzen. Mendian zeudenean elkarri deitzeko baliatzen zituzten. Hiletetan ere erabiltzen zituztela ere kontatu zigun. Nik, ordea, beti jai testuinguruan ezagutu ditut.

Nerea: Rakelen parte hartzea oso interesgarria izan da, ulertzeko bakoitzak zer nolako binkulazioa duen irrintziarekin. Beste batzuek familian elkarri esaten ez zizkioten gauzak esan eta barrenak askatzeko erabiltzen zuten irrintzia. Hamaika lotura dago oihuarekin.

Paki: Gure buruari galdetu genion ea antzina irrintzi bidezko koderik ba ote zegoen. Komunikatzeko tresna izan zitekeen.

Zer behar du irrintzi batek?

Nerea: Nik uste egonaldiak balio izan digula ere ulertzeko bakoitzak irrintziak modu batera botatzen ditue-



**“Ameslari
jarrita;
nahiko nuke
gehiagotan
elakrtu eta
gure artean
irrintzi bidezko
pieza artistiko
berriak sortu”**

la, eta denak direla onak. Guztiek dute bere balioa. Lehiaketen perspektibatik askotan oso markatuta dago zer den eta zer ez den irrintzi on bat (iraupen luzekoa, karentzia daukana, bukaera ozen batekin...). Molde eta ezaugarri horiekin apurtu dugu.

Paki: Irrintzia barruko gauza dela ulertu dugu, ez da kontu akademikoa. Barruan duzun zerbait botatzeko tresna da.

Eta zerk definitzen du irrintzi bat?

Gurene: Gure irrintziak bi zatitan bereizten ditugu: hasierako “ai ai ai” zati hori, eta gero beti gorde behar da arnas pixka bat azkenengo “yi ji ji” hori botatzeko.

Paki: YouYou Groupeko kideak oso harrিতා geratu ziren gure irrintzien azken zaitarekin.

Gurene: Bai, eurak ikertu eta landu dituzten oihuetan hasierako zatia nahiko antzekoa da, Afrika iparraldeko soinetan adibidez. Azken zatia, ordea, oso gurea da. Haietzako *nobedosa* izan da.

Zein da proiektuaren etorkizuna?

Gurene: Taldea sortu da eta elkar ezagutu dugu. Sormen laborategi batean egon gara murgilduta eta performan-

kultura



ce bat eskaini dugu. Nik uste orain gure artean batu eta gauzak egiten jarraitzeko ueña dela.

Nerea: Hurrengo hitzordua Bruselan dugu jarrita. Faktorian sortutako guztia bertara eramango dugu, eta azken ikuskizun batzuk egingo ditugu YouYou taldeko kideekin. Bertatik bueltatzen garenean uste dut aurrera egiten jarraituko dugula talde bezala, ikusi beharko dugu.

Paki: Lehen ez zeuden ate batzuk zabaldu zaizkigu orain.

Gurene: Oso talde ekitatiboa sortu dugu. Guztion ideiak hartzen ditugu kontuan. Hortik tiraka, guztion artean erabaki beharko dugu zein den taldearen etorkizuna.

Nerea: Ameslari jarrita; nahiko nuke gehiagotan elkar-tu eta gure artean irrintzi bidezko pieza artistiko berriak sortzea. Asko gustatuko litzaidake ere ikusentzunezko proiektu bat garatzea guztion artean sortu duguna gordeta uzteko, eta belaunaldi berriei irrintziaren transmisioa bermatzeko.

Gurene: Transmisioa oso gauza inportantea da. Orozkon, esaterako, haurrentzako txapelketa ugari antolatzen ditugu, irrintzilarien harrobi bat sortu eta honi jarraipena emateko.



kultura

Paula Urkijoren dantza lanarekin eta Parkour tailerrarekin hasi dira Faktoriako kultur adierazpenerako bi zikloak



Faktoriako sormen egonaldietan garatu du *Ameba* dantza-pieza. **Naia Vallejo.**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak kultura adierazpen anitzak erakutsiko ditu hurrengo asteburuetan. Iragan urriaren 20an abiatu zuten zikloa, eta urrezko aitzindaria izan zuen, gainera. Izan ere, Paula Urkijo Serrano dantzariak azken astean Faktorian garatzen ari den lan berria erakutsi zuen: *Ameba*.

Urkijok dantza garaikideko pieza taularatuko du Barikuak Plaza Egunak ekimenaren barruan, baina aurretik lan handia egin du Faktorian bertan. Izan ere, Aiaraaldea Ekintzen Faktoriako Kultura ildotik berriki abiatutako sormen egonaldien edizio berrian parte hartu du dantzari audioarrak.

Ostiral honetan, aldiz, *Patata Minak* antzezlanaren Ane Gebara eta Aitor Vinagreten sorkuntza eta *Ikatza eta Giroa* Joseba Arribabalagaren marrazketa eta soinu ikuskizunaz gozatzeko para-da egongo da.

Kale Arteren edizio berria

Urriaren 21etik azaroaren 18ra bitartean, aldiz, Kale Arte proiektuaren bigarren edizioa garatuko dute. Horren antola-

kuntzan elkarlanean aritu dira Kultur Faktoria eta Kultur-lab-Laudioko Kulturzaleak kultura sustatzeko elkarteak.

Ahalegin bateratu horren helburua da gazteei sortzeko eta gozatzeko tresnak ematea.

Kale Arte II. edizioa bihurtik azaroaren 18ra arte luzatuko da, larunbatero, ordutegi berean: 17:00-19:00, Faktorian. Bost kale arte diziplina ezberdinen tailerrak proposatu dituzte 12-18 urte bitarteko gazteentzako: parkourra (urriak 21), dantza urbanoa (urriak 28), rapa (azaroak 4), musika elektronikoa (azaroak 11) eta grafitia (azaroak 18).

Tailer gehien irakasleak Amurrio eta Laudiokoak dira: Amets Gil, Oñeka Bergara, Rlantz (Erlantz Serrano) eta Asier Aldama. Horietaz gain, Ane Guria rap abeslari bizkaitarra ere arituko da.

Berez, proiektu honen bidez gazteek, kale arteaz gozatzeko aukera izateaz gain, sare berriak osatzeko aukera ere izango dute gertuko euskal kale arte sortzaileen eskutik. Horien inguruko informazio gehiago jasotzeko edota izena emateko hemen klikatu daiteke.

Izorian jokatu da Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Izoriako txokoa lepo beteta eta Hogeitalau Euskara Elkarateak antolatutako Arabako Euskararen Egunen programazioaren barruan jokatu zen Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa. Guztira, Araba osoko 24 bertsolarik parte hartuko dute kanporaketa fasean, eta 2024ko txapelketan nork parte hartuko duen ebatziko da bertan. Izoriako saioan Unai Anda Delikak, Felipe Zelaieta Txurrukak, Xabier Antia Zuaznabarrek, Martin Abarrategi Sarrionandiak eta Ainara Balantzate-

Unai Anda amezagarra izan da lehenengo kanporaketako irabazlea, eta zuzenean sailkatu da 2024ko txapelketara

gik hartu zuten parte. Eskualdearen ordezkaria Unai Mendibil Etxebarria izan zen, eta Irati Martinezek gidatu zuen saioa.

Unai Anda izan zen lehenengo kanporaketako garailea, 196,5 puntu eskuratuta. Anda zuzenean sailkatu da 2024ko Bertsolari Txapelketara. Gainerako bertsolariak kanporaketa guztiak jokatu ostean sailkatuko dira, puntuazio hurrenkeraren arabera.

Hauek izan ziren Izoriako saioko gainerako puntuazioak: Martin Abarrategi 182,5 puntu; Felipe Zelaieta 175,5 puntu; Xabi Antiak 169 puntu; Unai Mendibilek 158 puntu; Ainara Balantzategi: 110,5 puntu.

BONOAK ETA INFO
KULTURFAKTORIA.EUS

Arte HARTZE

ZIKLOA 2023

SORMENA HOSTOZ HOSTO
HURRENGO EMANALDIAK

'ARTXIBO BILUZIA'
'PANPIN HAUTSIEN DANTZA' • **'FOREVER'**

2023/11/19 • 18:00
10€ • Aiaraaldea Ekintzen Faktorian

Izan daiteke dokumentu bat akzio fisikoaren detonantea? **Metrokoadroka sormen laborategia** amaitzen ari den antzezlan berriena edukiko dugu taula gainean: hutsik geratutako karpeta bat, antzerkiaren baliabideekin betetzen saiatuko dira. Aurretik, **Idoia Hatxek** piano kontzertua eskainiko du, emakumeengan ezarritako etiketak berriinterpretatzeko proposamen musikala. Tartean, sormenaren hasiera fasean dagoen dramaturgia testu bat irakurriko du **Maite Aizpurua**.

Antzerkia • Pianoa • Errezitaldia

'METEO' • 'BELARRIPREST'

2023/11/05 • 18:00
10€ • Aiaraaldea Ekintzen Faktorian

Zuzeneko kontzertu multimedia esperimental, **Miren Narbaizaren** eta **Itziar Garaluceren** eskutik: eguraldiaren eta klimatologiaren gaineko hausnarketa bat, musikaren eta arte bisualen bidez. Ondoren, **Amalia Bono** aktoreak "nire lehen sortzela euskaraz" taularatuko du.

Musika • Arte bisualak
Antzerkia • Performantzia

ARTE EMAN FESTA

2023/12/02 • Egun osoan zehar
10€ • Aiaraaldea Ekintzen Faktorian

Kultur Faktorian urte osoan zehar **prozesu kreatiboak** garatu dituzten sormen egonaldietako eta sormen beketak artisten topaketa eguna. Argazki erakusketak, instalazio artistikoak, dantza piezak, bideo proiektzioak, errezitaldiak, bakarriketak...

Arte diziplina ugari

'EMCUMEAK' • ZIKLO AMAIERA

2023/12/17 • 17:00
Mahaingurua DOAN | Antzezlanak 5€
Aiaraaldea Ekintzen Faktorian

Aiaraldekoko kulturaz, **Arte Hartz Zikloa** eta hurrengo erronkez hausnarketa kolektiboa egitera gonbidatu nahi ditugu eskualdekoko sortzaileak eta publikoa bera. Zikloa amaitzeko, barre egingo diogu bai geure buruari eta bai kultur industriari. **Zelako Kultur Ideiak** Kooperatibaren eskutik, euskal emakume sortzaileen 'maccionalizazioa' agerian uzten duen satira musikala antzetzeko dute **Itxaso Payak** eta **Maria Riverok**.

Antzerkia • Mahaingurua • Partehartze dinamikak

babestutako edukia

LARUNBATERO, 17:00-19:00

KALE ARTE II. EDIZIOA



URRIAK 28 DANTZA URBANOA

Irakaslea: ONEKA BERGARA, LAUDIO



AZAROAK 11 MUSIKA ELEKTRONIKOA

Irakaslea: ERLANTZ SERRANO, AMURRIO

AZAROAK 4 RAPA

Irakaslea: ANE GURIA, BILBO



AZAROAK 18 GRAFITIA

Irakaslea: ASIER ALDAMA, AMURRIO



ADINA: 12 - 18 urte
PREZIOA: DOAKOA
IZEN EMATEA: Izena eman parte-hartu
 nahi duzun tailer guztietan.
WWW.FAKTORIA.EUS-en

Errotari kalea, 4-8 pabilioia. LAUDIO

www.faktoria.eus ✉ kultura@aiaraldea.eus ☎ 633 517 383

@aiaraldeaekintzenfaktoria

 GAZ-
TE
-GAZ
TEAK
AIARALDEAN

 KUL-
TUR
-
FAK-
TORIA
www.faktoria.eus

 KULTUR
LAB

kirola

3-1 gailendu zen tokiko taldea Basarten, Amurrioko futbol klubaren 75. urteurrena ospatzeko antolatutako norgehiagokan. Laguntasuna eta giro ona izan zen nagusi.

Amurrioko beteteranoek Athletic Clubekoei irabazi zieten giro onean jokatutako partidari



Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkiak **Chris Gomez**

Amurrio Clubeko eta Athletic Clubeko beteteranoak izan ziren igandean Basarten norgehiagokan. Partidaren helburua zen tokiko taldearen 75. urteurrena ospatzea, baina ez da ahaztu behar Ibaiganekoa ere 125. urteurrenean buru-belarri sartuta dagoela hamaika ekin-tzarekin.

Gauzak horrela, giro bikainean jokatu zuten eta publikoak nabarmen gozatu zuen jokala-

riek eskaintako ikuskizunarekin. Berez, 35 minutuko bi zatitan banatu zuten norgehiagoka eta Amurriok hiru gol sartu zituen; Aimar Basualdo, Saratxo eta Jon Llanoren eskutik. Athleticken gola, ordea, Aguirregomezkortak sartu zuen penaltiz.

Amurrioko entrenatzaileak Kike Hidalgo eta Jose Miguel Alvaro izan ziren eta Athletic Clubekoa Rafa Dehesa.

Futbolarietako dagokienez, honakoak atera ziren zelaira Amurrio Clubeko kamisetan jantzita: Laurentz, Bittor Saez, Jon Guinea, Mimenza, Castro, Aimar

Paredes, Carlos H., Manrique, Crespo Eneko B., Yuste, Luis Mari, Ioritz Hernandez, Saratxo, Jon Llano, KuKo, Berni, Txingu, David Ruperez, Rebollo eta Alex.

Athletic Clubarekin, ordea, honako hauek aritu ziren: Axier Abad, Carlos Castilla, Luis Fernando, Eleder, Acedo, Goio Soria, Anton Arteaga, Javi Casas, Koikili, Javi Gonzalez, Mikel Amezaga, Anton Olondo, Ibon Gutierrez, Raul Guerrero, Oskar Alkorta, Gorka Soria, Iker Madariaga, Aitor Ramos, Joseba Aguirre, Mikel Agirregomezkorta eta Jonan Izarra.



kirola



bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik /hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

2.500 bezerok gugan
dute konfiantza

945 712 822
bertako.eus



kirola



Eskubaloia; fenixa bezala burua altxatzen berriro

Laudioko Eskubaloi Taldeak hainbat urtez kirol horren zama bakardadean eraman ostean, Amurrion eta Arrankudiaga-Zollon agertu dira talde berriak diziplina hori biziberritzeko.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Garai batean, Amurrion zein Laudion zeuden eskubaloi taldeak eta duela hamarkada bat eskas, Patri eta Pinedo arrebekek eliteko hiru liga eta kopa irabazi zituzten eta Munduko Txapelketan brontzezko domina eskuratu zuten. Eskubaloia, hortaz, ez da egun batetik bestera eskualdean loratu den diziplina, baizik eta erro sendoak dituena.

Erro horiek hazten joan dira azken urteotan eta horren emaitza azaleratzen joan da apurka-apurka. Izan ere, denboraldi honetan Aiaraldeko hiru herri-tan jokatu dute eskubaloian. Amurrion benjamin eta kimu taldeak sortu dituzte, Arrankudiaga-Zollon benjamin taldea aste-buru honetan hasi zen Bizkaiko Txapelketan-neskak dira nagusi-eta Laudion zerrenda luzea da: bi

benjamin misto, kimu bat misto, umeen misto bat, kadeteetan bat neskena eta beste bat mutilena, eta bi senior talde gizonekoak. Javi Conejo audioarren ardura-dunetako batek azaldu du, dena den, dena ez dela positiboa izan: "Senior emakume taldea sortzeko jokalaririk nahiko ez dugu izan, batzuk joan baitira beste klub batzuetara. Pozten gara euren garapenarekin jarraitzen dutelako, baina arazoa da talde bat galtzea. Bestalde, aurtengo talde beterranoa ere ez dugu izango". Ez da ahaztu behar duela denboraldi gutxi, 2016an, beterranoek Bizkaiko Txapela eskuratu zutela.

Gazteak eta umeak kirolera lotzeko, edonola ere, ezinbesteko osagaia izan da helduen inplikazioa eta zenbait erreferenteren ahalegina. Esaterako, Amurrion ikastetxez ikastetxe aurkeztu dute kirol proiektua eskubaloiko bi totemek. Alde batetik, arestian

aipatutako Patri Pinedok hartu du hitza diziplina horren zaletasuna pizteko. Beste alde batetik, bere alboan Unai Arrieta -bere bikotea- egon da. Pinedok dozena erdi txapelketa bereganatzen zituen bitartean Itxakon, Arrietak Bidasoan edota Logroñon ibilbide profesional oparoen egin zuen ASOBAL ligan.

Bi izen entzutetsu horietara batu dira zenbait guraso eta Arrankudiaga-Zollon ere erreferente garrantzitsua izan dute, Alex Sanchez Olla. Alexek bost urte zituenetik jokatzeko eskubaloian eta jadanik 39 ditu. Laudion militatzen du orain, baina aurretik hainbat urte aritu izan da Atletico Basaurin eta kirola ondo baino hobeto ezagutzen du Bizkaian (bere selekzioiko kirolari izan da, adibidez).

Bere zaletasuna ezagututa, zenbait gurasok iradoki ziotenean eskubaloi taldea susta-

Eskubaloiaren hedapenaren sekretuetako bat elkarlana izan da

tzea, ez zuen zalantzarik izan: "Nire alabak jadanik badauka adina jokatzeko eta iruditu zitzaidan aukera bikaina kirola sustatzeko eta beste aukera bat emateko herrian praktikatu nahi duenari. Guraso Elkartearen zein Udalaren babesa izan dut eta nik entrenatzeko parada ez dudanean, Laudion entrenatzaile bat etortzen da". Oraindik jokalaririk izanda, Alex Sanchez Ollak argi dauka zergatik jarraitzen duen kirolean eta zer nahi duen bere taldeko gazteek gozatzeko: "Nire arreba jokalaririk profesionala izan zen eta nik leku eta jende pilo ezagutu ditut kirolari esker. Edonola ere, espero dut gazteek talde izpiritua bizitzea. Hori da gure helburua, taldea egitea".

Hiru proiektu eta elkarlana

Eskubaloiaren hedapenaren sekretuetako bat elkarlana izan da. Laudion klubak entrenatzaile-

leak ditu eta prest egon dira Amurrioren zein Arrankudiaga-Zollon laguntzeko eta, zentzu horretan, Alex Sanchezek berak ez du ezkutatzen gogoko izango lukela bere taldeko zortzi neskek eta bi mutilek Laudion amaitzea jokatzeko, eskola kirolako ibilbidea amaitzean.

Hala eta guztiz ere, Javi Conejok argitu du Laudio Eskubalo Taldearen lana ez dela besteen proiektua baldintzatzea, baizik eta indartzea: "Guk besteak laguntzen baditugu ere, talde bakoitzak bere filosofia eta nortasuna dauka, alde ona da gure harremanen elkarlanean oinarrituta dagoela".

Kasualtaterik ez

Batzuen aburuz, eskubaloia izan itzulera hau kasualitatea izan daiteke, lan luze eta jarraituaren ondorioa izan daordea. Javi Conejok adierazi dio Aiaraldea Komunikabideari hausnarketa sakonaren emaitza izan dela egungo egoera, berak barrutik bizi izan baitu: "Ni zorionekoa izan nintzen eta 17-18 urte izan arte Laudion jokatu nuen eskubaloian oso maila onean. Talde potentea genuen eta Euskal Ligan aritu nintzen. 18 urterekin lesio larriak izan nituen belaunean eta utzi behar izan nuen, baina entrenatzaile gisa jarraitu nuen. Duela hainbat urte Laudioko jaietako kua-drillen antolakuntzan ibili nintzen buru-belarri eta, hori alboratu ondoren, eskubaloia klubera bueltatu nintzen".

Erakundearen beste kide batzuekin batera hasi ziren pentsatzen zertan egiten zuen kale klubak eta nola irauli ahal zuten jarrera: "Beste klub batzuen indarguneak analizatu genituen eta saiatu gara eredu horiek baliatzen. Egin genituen zenbait urterako plana eta joan gara betetzen. Hiru urtean behin berriro baloratzen eta eguneratzen dugu".

Esaterako, inguruko proiektuak babesteko ezinbestekoa izan da laudioarrek hartutako norabidea: entrenatzaileak trebatzea eta talde prestatua lortzea.

COVID-19 birusaren agerpenak, dena den, egindako lan gehiena pikutara bidali zuen eta eskubaloia klubak uste zuen eragindako hazkunde guztia etengo zela behin betiko. Zorionez, ez da horrela izan eta geroz eta jende gehiago batzen ari da proiektura.

Ekintza gehiago

Conejok bere burua ikusten du bigarren lerroko bultzatzaile moduan: "Ni atzetik nabil tiraka, ez dut gustuko lehen lerroan egotea.

Gainera, klubeko beste kide batzuekin talde oso eraginkorra osatzen dugu".

Protagonismo gose faltak erraztu dio Laudio Eskubalo Taldeari antolakuntza lanak bere gain hartzea eta pasa den denboraldian, esaterako, Euskal Koparen finala Granja Kiroldegian jokatu zuten, harmailak betetzea eta zaletasuna hauspotzea ahalbidetu zuen.

Horrez gain, abenduan laudioarrek haien gain lan ikusezin eta mardula hartzen dute Euskal Selektzioak Laudion entrenatzeko: "Otorduak prestatzen dizkiegu eta ziurtatzen dugu prestaketa saioetarako behar duten materiala eskura izatea".



kirola

ESKALADA

Laudioko I. Eskalada Txapelketa egingo dute



Duela urtebete inauguratu zuten Laudioko rokodromoa. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 4an Laudioko I. Eskalada Txapelketa egongo da jokoan Latorroko rokodromoan. Edonola ere, lehiaketak baditu bestelako helburuak: kirol gutxiak ikusaraztea, zaletasuna sustatzea...

Horregatik, lehiakortasuna ez da jardueraren osoaren ardatza izango. Hain zuzen, 10:00etatik aurrera umeak izango dira protagonistak eta jolasen bitartez eskaladara hurbiltzeko aukera emango dute Haitzetan Gora Mendi Taldeko kideek.

Antolatzaileek aipatu dute euskara erdigunean jarriko dutela eta haurrentzako moka-dua eta oparienezko zozketa egongo direla. Horrez gain, sortu berri duten eskalada eskolako talde argazkia egingo dute. Arratsaldean, ordea, 14 urtetik gorako

eskalatzaileek aukera izango dute txapelketan parte hartzeko. Izena eman beharra dago urriaren 23an edo lehenago. 5 euro balioko du inskripzioak eta kamiseta oparitu dute.

Probak bi zati izango ditu. 15:30etik aurrera finalean sailkatzeko erronkaren txanda helduko da. Parte hartzaileek hamabi bloke gainditu beharko dituzte eta puntuazio onenak eskuratzen duten hiru gizonezko eta hiru dituzten aurrez aurre egongo dira 18:30etik aurrera. Finalean hiru bloke eta soka ibilbidea egin beharko dituzte finalistek. 19:40ean hasiko da bi kategorien sari banaketa.

Interesdunek aintzat hartu behar dute 60 kirolari baino ez dituela onartuko antolakuntzak, hortaz, Internet bidez bete dezakete inskripzioa.

ATLETISMOA

Hiru podium lortu dituzte Laudio Atletismoko kirolariek Bilboko Nazioarteko Milian

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Bilboko erdigunean lehiatu zen Nazioarteko Milia lasterketa hainbat kirolariren partaidetzarekin, eta Laudio Atletismo Klubak emaitza oso positiboak izan zituen.

Taldea 25 atletekin joan zen Bizkaiko hiriburura eta hiruk lortu zuten podiuma zapaltzea. 23 urtetik azpiko kategorian Ane Lopez izan zen irabazle, 06:16 marka ezarrita. Ane Aldaiturriagak berekin hartu zuen tokia podiumean, hirugarren postuan, 06:50

marka lortuta. June Rivas, aldiz, 18 urtetik beherako kategorian bigarren sailkatu zen 06:02 marka bikainarekin.

Laudio Atletismo Klubak, horrenbestez, denboraldia hasi du eta helburuen artean dago eskola zein federatutako kategoriaz guztietako kirolariak trebatzea. Horrez gain, saiatuko dira estatuko zenbait txapelketatan sailkatzen, bai banaka zein taldeka. Xede jakin gisa, aipatu dute Sorian azaroaren 17tik 19ra jokatu den Espainiako Kros Txapelketan egoten saiatuko direla.

FUTBOLA

Belar artifizialeko zortzi zelai aldatu beharko dituzte Aiaraldean, Europar Batzordeak kautxuaren erabilera debekatu duelako



Ellakuriko zelaian belar artifiziala jarri zuten 2017an bere erabilera areagotzeko. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Europar Batasunak mikroplastikoen aurkako politikak bultzatzeari ekin dio eta horrek eragin zuzena izango du herritarren bizitzetan. Printzipioz, estrategia horren berri izan zuen jende gehienak purpurinaren debekua dela medio, baina kautxuaren aurkako neurriek ere isla izango dute aurki.

Izan ere, Europar Batzordearen aburuz, mikroplastikoen iturburu nagusia kautxua da eta gai hori belar artifizialeko zelaietan baliatzen da, hare geruzaren azpian, hain zuzen. Hori dela eta, Europar Batasunak kautxuaren ekoizpena debekatu du eta belar artifizialeko zelaiak ere aldatzeko beharra ezarriko du, zortzi urteko epean.

Aiaraldean belar artifiziala erabiltzen dute hainbat udale-

Zortzi urteko epea eman du Europar Batzordeak kautxuzko kirol azpiegiturak ordezkatzeko

rrik, futbol zelaietan, gehienbat (nahiz eta erabilera anitza eman ahal zaien kirol azpiegitura horiei). Guztira, kautxua duten zortzi zelai daude eskualdean: Urduñako Arbietokoa, Orozkoko eta Arrankudiagako futbol zelaiak, Amurrioko Refor kirolgunean dauden bi azpiegiturak eta Laudioko Ellakurikoa, Alzarratekoa eta Gardeako Hockey zelaia.

Gogoratu beharra dago 600.000 euro bideratu zituela Laudioko Udalak Ellakuriko zelaira 2016an eta 2017an. Inbertsio horren asmoa zen ahalbidetzea futbol jokalarik gehiagok baliatzea kirolgunea, eta ez soilik CD Laudioko talde nagusiak.

Europar Batasunak agindutako aldaketak inbertsio gehiago ekarriko ditu, baina ikusteke dago zer nolako diru kopurua exijituko duten.

herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Azaroaren 8an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Inma

Ama bakarra, eta mundiala!
Zorion zure zure ametsetan, zorion urte luzetan, zorionak zuretzako

Zure alaba



Jon

Musikazalea, marrazkilaria
bikaina... egur zati txiki batzuekin
edozer eraikitzeko bezain sortzaile.
Zorionak!

Zure lehengusina



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Denborapasak

ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 6 | 3 | | | | | 7 |
| | | 8 | 6 | 5 | | | 9 | |
| 2 | 1 | | 7 | 4 | 9 | | | 8 |
| | | | | 3 | | | | |
| | | | 4 | 8 | 6 | | 7 | |
| 8 | 3 | 5 | | 9 | | 2 | | |
| 5 | | 7 | | | 3 | | | 6 |
| | | | 8 | | | 4 | | |
| | | | 2 | | | | | 5 |

OSO ZAILA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|--|---|---|---|--|
| 1 | 4 | | 3 | | | 7 | | |
| 8 | | | | | | | | |
| | 6 | | | | | 1 | | |
| | 1 | | 7 | | | | 2 | |
| 3 | | 4 | 8 | | 5 | | 9 | |
| | | | | | | | 1 | |
| 4 | | 6 | | | | | 8 | |
| | | 5 | | | | 3 | 1 | |
| | | | 4 | | 2 | | | |

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



**Errigorak 50 euroko
hiru saski zozkatuko
ditu Aiaraldean bere 10.
urteurrena ospatzeko**

50 euroko balioa duten Errigoren hiru saskiren zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Urriak 31, 15:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

BURBUILA MIRAGARRIA

Idazlea: Caroline Erard

Ilustratzailea: Nadge Petrel

Adin tartea: 5-10 urte

Argitaletxea: Tartalo

Gaur, ilargik ezertarako gai ez dela sentitzen dut... Eskolako ariketan berak espero baino nota okerragoa lortu du. Asko ahalegindu da, eta honela galdetzen dio bere buruari: zertarako ikasi? Zertarako balio du? Haritz handiaren enbor hutsean bizi den hontz txiki batek opari magiko bat egingo dio galdera horri erantzuteko...



ZERUA GRIS DAGO

Idazlea: Liebana Goñi

Ilustratzailea: Isaac Martinez

Adin tartea: 6-10 urte

Argitaletxea: Pamiela

Zerua gris dago. Plaza txuri. Txuria bakarrik. Hutsik. Eta isiltasuna. Elur maluten isiltasuna. Adiskidetasun baten sorrera, generoak eragindako aurreiritzien kontrako aldarria, laguntasunaren aldeko proposamen sotila. Zeru grisaren azpiko zelai zurian aurki daitekeen bizitzari gorazarrea.



JOLAS GUNEA

STORY CUBES

Gomendatutako adin-tartea:

7 urtetik aurrera

Jokalariak:

2-10 artean

Editoriala:

The Creativity Hub

ZER DA?

Bat-bateko istorioak sortzeko jolasa da. Entretengarria eta originala. Jolas honetarako dadoak baino ez dira behar. Dado horietan, ekintzak, objektuak, lekuak, animaliak eta sentimenduak adierazten dituzten marrazkitxoak daude. Gutxienez, 2 pertsona behar dirajolasteko.

Oso jolas egokia da arlo desberdinak landu ahal izateko. Alde batetik, irudimena lantzeko aukera ematen digu. Izan ere, parte hartzaileek haien alde sortzaileena atera beharko dute ahalik eta istorio politenak sortu ahal izateko.

Beste alde batetik, jolasteko modu desberdinak daude... Horietako bat parte hartzaile guztien artean istorioa sortzea da. Modu honetan, taldean jolasten ikasiz, elkarlana eta talde iaera lantzen direna.



KOKORIKO

HEZKUNTZA FAKTORIA

Halloweenari kalabazak eman

Izenek axola dute, historiak gertaerei ematen dielako izenaren mamia. Horrexegaitik garrantzi handikoa da egun hauetan dugun datei izen egokia ematea. Halloween edo Arimen gaua? Zein da zuzena? Zer da urriak 31 eta azaroak 1 bitartean dagoen gauean ospatzen duguna? Erantzun baino lehen inportatea da egun horren jatorria ezagutzea. Ez da soilik jaiak euskaratik eta euskaraz antolatuta eta bizitzearen garrantziagaitik, baizik eta ospatzen dugunaren historia jakiteagatik.

Gau Beltza edo Arimen Gaua aspalditik ospatzen da Euskal Herrian, eta lotura estua du gure herriekin. Baina Arimen gaua ez da Halloweenaren kopia euskalduna? Ba ez, Gau Beltza herri zelta batzuen eskutik iritsi zen Euskal Herrira, Ipar Amerikara heldu zen bezala. Euskal Herrian tradizio hauek hasieran Araba aldean kokatu ziren, eta gero Gipuzkoa eta Bizkaiko eskualde garaietan.

Baina gaur egungo umeoi gustatzen zaigu telebistan Estatu Batuetatik ikusten dugun Halloween jaiak: mozorroak, kalabazak eta beldur giroa, edo hori ez al da bertoko ohitura? Ba hori ere ez da egia. Arabako herriak ere kalabaza edo arbi argiztatu tradizionalak betetzen ziren AEBko ohitura hori hona ekarri baino lehen, baina herrialde hauetan askoz ere ohikoagoa zen erremolatxak eta patatak erabiltzea. Aramaion, esate baterako, Gaba Baltza deitzen diote jaiari, eta kalejirekin ospatzen dute, kaleak eta auzoak kalabazekin eta kandlekin apaintzen dituzten bitartean.

Jai honek hildakoak gogoratzearekin harreman estua du, hori dela eta, mamuak, arimak eta kolore beltzak betetzen dituzte gure kaleak. Ohitura hau zorritzarekin gaitzen ari da, eta Ameriketatik etorritako jai komertzial bat ari da lekua kentzen, aski ezaguna den Halloween.

Halloween Ipar Amerikan eta Euskal Herrian ohitura oso antzekoa ziren, baina gaur egun dinamika oso desberdinak ekartzen dizkigu Halloweenek, batez ere komertzioaren publizitateak eta zineak eman dion bultzadarengatik. Egun, Halloween kontsumismoan (mozorroak, apaingarriak etab) eta jaiaren oinarritzen da.

Bete ditzagun, beraz, gure kaleak kalabazekin, beldurtu dezagun gure auzokidea, mozorrotatu gaitzen eta ospa dezagun gure defuntuen gaua beti egin dugun bezala: familia, lagunekin edo bakarrik, baina ez inposatzen diguten jai eredu komertzialarekin.



| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| U | | T | A | | |
| | A | | T | | U |
| R | | | | U | A |
| I | | A | | T | |
| T | | U | R | | |
| A | | | U | | T |

Sudokua

Bete itzazu sudoku honen hutsuneak, TRIKUA hitza osatzen duten hizkiez (T, R, I, K, U eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| S | N | B | U | C | P |
| E | A | I | X | S | O |
| S | J | G | A | I | K |
| U | P | R | U | R | B |
| A | I | O | R | A | E |
| A | O | U | A | T | A |



AIZU, BA
NIRETZAT TRIKUA

S

DA



HARA!
NIRETZAT, BERRIZ,

K

DA



| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| K | U | N | B | I | A |
| I | A | I | R | O | S |
| T | R | I | Z | U | K |
| U | P | I | K | A | L |
| A | N | T | I | N | E |
| A | S | T | A | O | A |



Hitz ezkutak

Zer diote gure neska-mutilek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki geziek agintzen dizuten moduan. Abiapuntua, bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu. Jakin ezazu trikuari deitzeko moduz ari direla biak.

Mezu gordea

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, begiratu irudiño bakoitzari zein hizki dagokion eta biribilean idatzi. Esaera zahar bat agertuko zaizu.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | B | C | D | E | F | G | H | I | J | K | L | M | N | O |
| P | Q | R | S | T | U | V | W | X | Y | Z | . | , | ! | ? |

SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura



Eztizen Manero

JAIOTERRIA
LAUDIO (1991)

BIZILEKUA
CORK (IRLANDA)

BIDAIAREN XEDEA
LAN BILA JOAN ZEN IRLANDARA DUELA SEI URTE. ORAIN UNIBERTSITATEAN IKASTEN DAGO



“Irlandan errazagoa da lanpostu kualifikatu bat lortzea”

Urte nahikotxo daramatzazu Irlandan bizitzen. Nola iritsi zinen bertara eta zertan zabilta?

Sei urte eta erdi daramatzat Irlandan bizitzen. Lehen aldian ingelesa ikastera etorri nintzen, eta *au pair* (familiaria batean umeak zaintzen) moduan joatea erabaki nuen. Uste dut errazena dela modu horretan joatea, herrialde berri batean bizitzen laguntzen zaituelako.

Aukera ezberdinak nituen, baina azkenean familia bat topatu nuen Irlandan. Corken bizi naiz, Irlandako bigarren hiri handienean. Urte erdi egon nintzen bertan *au pair* moduan lan egiten.

Laudiora itzuli nintzen gero, baina handik gutxira bueltatu nintzen berriz, bertako esperientzia gustatu zitzaidalako eta lagun oso onak egin nituelako.

Zertan zabilta orain?

Irlandara itzuli nintzenean lan zein etxebizitza bila hasi nintzen, jende askok egiten duen bezala. Banuen lagun bat *au pair* izan nintzen garaitik ezagutzen nuen, eta berarekin geratu nintzen hasieran. Gero apartamentu bat topatu nuen, eta baita lana ere. Udan bost urte bete nituen lan horretan.

Horrez gain, unibertsitatean hasi nintzen iaz. Bigarren mailan nago orain, eta beste bi ditut aurretik, Biologiako irakasle bihurtzeko.

Alde handia sumatu duzu Laudion bizitzetik Corken bizitzera igarotzean?

Bai, bi toki oso ezberdin dira. Janaria da, seguraski, faltan gehien botatzen dudana (barreak), Irlandako janaria ez baita, agian, onena. Familia eta la-

gunak ere botatzen ditut faltan, noski. Baina, bestalde, oso gauza onak ere ditu Corkek. Aukera handiak ematen dizkizu beste kultura batzuetako pertsonak ezagutzeko. Asteko edozein egunetan joan zaitezke taberna batera, kristoren giroa dagoelako egunero. Bizimodua oso ezberdina da, baina ez da hobe edo txarragoa.

Aipatzen duzunagatik, badi-rudi ez dagoela ezberdintasun askorik Euskal Herriaren eta Irlandaren artean, erlaziozatzeko moduei dagokionez behintzat.

Ezberdintasunak sumatu daitezke izaerari dagokionez. Nire iritziz, Euskal Herrian errazagoa da lagun minak egitea, hobeto konektatzen duzu. Irlandarekin niri ematen didan sentazioa da oso jatorrak direla eta euren ateratzen bazara oso ondo

pasatuko duzula, baina zaila da hortik harago konektatzea. Iruditzen zait barrera moduko bat jartzen dutela, eta ez dela hain erraza beraiekin harreman estuak izatea.

Lana aipatu duzu, nolako da Irlandako egoera esparru horretan?

Uste dut errazagoa dela hemen lanpostu kualifikatu bat lortzea, Euskal Herrian baino. Aukera gehiago daude. Irlandan ez dago horrenbeste *titulitisik*. Ikasi baduzu eta maila baduzu, errazagoa da lana topatzea.

Baina, bestalde, hemen oso zaila da etxebizitza aurkitzea. Ezagutzen dut Irlandara ingelesa ikastera etorritako jende asko itzuli behar izan dena, etxebizitzarik aurkitu ez duelako. Beraz, une honetan krisi handiena etxebizitzarena da.

IRLANDA



DESKRIBAPENA

Irlanda uhartea politikoki bi zatitan banatuta dago. Irlandako errepublika dago alde batetik, estatu subiranoa dena. Cork hiria zonalde horren hegoaldean kokatuta dago. Bestetik, Ipar Irlanda dago, Erresuma Batuaren agindupean dagoena.

AZALERA

84.421 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

6,5 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Irlandako errepublikan ingelesa eta gaelera dira ofizialak. Ipar Irlandan ingelesa da soilik ofiziala.



Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio, Araba, 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA